





Jonan Fernandez

«Ezin dira presoak
bakarrik utzi, aurretik
beste norbaitek
autokritika egin behar du»

- **Herri bozak Iparraldean** Jean-Claude Iriart, abertzaleen gorakadaren adibidea Baionan
- **Pedro Muguruza Otaño** Francoren arkitektoaren obra eztabaidagai
- **Marina Ruiz**, dantzaria «Arte eszenikoek protestari beste forma bat emateko balio dute»
- **Oposaketak Nafarroan** Arartekoak ebatzi du ingelesak ezin diola euskarari gain hartu
- **Larrun** Pertsonak ekonomiaren zutabe
- **Net Hurbil** Gasa, urrea eta monetak Krimeako botere borrokan

argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioa
- Promozio bideoak
- Dokumentalak (iraupen luzeko grabazioak)
- Itzulpenak eta azpigitulazioa

ARGIAren bidezko zabalkundea,
GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta modu oneko prezioetan

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta 1.200 bideo baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.com



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko martxoaren 30a, 2.409. zenbakia

ASTEKO GAIA

PEDRO MUGURUZA OTAÑO Frankismoaren arkitekto kutuna.

AITOR AZURKI / 4

PERTSONAIA

MARINA RUIZ: «Gorputza, mugimendua eta espazioa dira nire baliabideak». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIK

SAGARDOTEGIAK Bazkaldu al dezake sagardotegian begetarianoak?

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 14

ETXERIK GABEKOAK Salda eta konpainia banatzen.

KOLDO AZKUNE ETXABARRI / 16

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Seme-alabek etxean bizitzen jarrai dezaten borrokatuko dut. LANDER ARRETXEK / 17

IRITZIAREN LEIHOA

EZ NAIZ GAI JUNE FERNÁNDEZ / 18

IRUDIMENTSUAK OIER ARAOLAZA / 20

ATZERAPENAK AITOR ZABALETA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Edonon, edonoiz. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK Fernandoren urtea. BIXENTE GOROSTIDI / 21

ERDIKO KAIERA

GABRIEL OCINA: «Arte eszenikoetan ikasketa ofizialak existitzea da gure kezka». UNAI BREA / 22

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 26 **MUSIKA** JOXI UBEDA / 27

IHESI BOLINTXU (BILBO) Supersurrek mehatxatutako arnasgune naturala. MARIJO DEOGRACIAS / 28

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Gutunaren beltzak. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 33

OSASUNA JABIER AGIRRE / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

JONAN FERNANDEZ: «Biktimei eragindako mina ez dela justua izan aitortzea oinarritzkoa da». XABIER LETONA / 38

HAURREN HIZKUNTZA ERABILERA Whatsappak batutako galego hiztunak. ROMINA BAL, TXERRA RODRIGUEZ / 42

OPOSAKETAK NAFARROAN Ingelesak euskarak baino gehiago. ANDER PEREZ / 43

HERRI BOZAK IPARRALDEAN Abertzaleek zirt edo zart egin behar dute bigarren itzulian. MIKEL ASURMENDI / 44

SEASKA Beskoitzeko ikastola aurrera, Parisek salaketa kendu ostean. URKO APAOLAZA AVILA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Gerra Hotza Krimean: gasa, urrea, monetak eta diplomazia. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

PEDRO MUGURUZA OTAÑO

Frankismoaren arkitekto kutuna

Pedro Muguruza arkitektoa (Elgoibar, 1893-Madril, 1952) aholkulari nazionala, gerraosteko Arkitektura zuzendari nagusia, Falangeko buru eta Espainiako Gorteetako prokuradorea izan zen diktaduran. Valle de los Caídos, eta Donostia nahiz Bilboko Jesusen Bihotzen egilea dugu, besteak beste. Elgoibarko seme kutuna da eta kale batek bere izena du oraindik. Hondarribian adopzio-semetzat dute.

| AITOR AZURKI |

EUSKAL HERRIKO PAISAIA anitz eraldatu zituen; gure herriaren historiako zati batean eragin handia izan zuen, baita Espainiakoan ere. Francoren arkitekto kutunena elgoibartarra zen: Pedro Muguruza Otaño. “Erregimenaren arkitektoa zen, erreferentziazkoa”. “Ikurrei garrantzi handia ematen zien frankismoak eta erabateko adostasun politikoa izateaz gain, Muguruzak diktaduraren estilo artistikoarekin bat egiten zuen”, azaldu dute Jesús Gutiérrez eta Iñaki Egaña historialariek, hurrenez hurren. Francisco Franco Fundazioaren webguneak ere argi dio: *Pedro Muguruza, arquitecto de cabecera del Caudillo*.

Gerra aurretik jada zenbait eraikin ospetsuren egilea dugu elgoibartarra. Besteak beste, ospe handia eman zion Madrilgo Palacio de la Prensa eraiki zuen 1925ean, baita Alfonso XII eta Felipe IV karriketako hainbat etxebizitza garrantzitsu eta Teatro Real ere; Bartzelonako Frantziako Geltokiaren berriztapena, bestalde, bere eskutik egin zen.


1936an gerra leherturik, “Altxamendu Nazionala bultzatu zuen eta Falangera afiliatu zen. Francorekin oso harreman ona zuen”, dio Francoren fundazioaren webguneak. Hala, gerraostean eskuratu zuen benetan Muguruzak boterea, Falangek Arkitektura Zuzendaritza Nagusiko buru jarri baitzuen. Gutiérrezek dioskunez, “Muguruzak bat egin zuen frankisten ideologiarekin. Alde batetik, profesionalki gai zela ikusi zuten, eta bestetik, derrigorrezkoa zuten horrelako jendea bere egitea: pentsa zenbat goi mailako eta mota guztietako intelektual eta profesional hil edo erbesteratu zituzten!”.

Hori gutxi balitz, gerraosteko Espainiaren egoera penagarria zen: azpiegitura gehienak suntsiturik, frontea izandako hiri eta herriak ere txikituta... Askok zegoen egiteko. Honenbestez, elgoibartarrak erregimenaren barnean izan zuen aireratzea izugarria izan zen lehen bi hamarkada odoltsuotan: Gobernuko aholkulari nazional izendatu zuten eta 1943an Espainiako Gorteetako prokuradore ere bai.

Frankismoak goratu, demokraziak ahaztu

Horren ibilbide adierazgarria izaki, nola liteke arkitektoa Euskal Herrian batera ezaguna ez izatea egun? “Arraroa da oraintxe arte ez aipatu izana; akaso Elgoibar kanpokoentzat ezezaguna izan delako”, erantzun du Gutiérrez eibartar historialariak. Egañak, berriz, argi du: “Frankismoa olagarro bat bezalakoa izan zen: buruak oso ezagunak dira, beste zenbait eragile, aldiz, erabat ezezagunak. Azkenean, egungo belaunaldiak historiaren interpretazioa egiten dute, baina xehetasunetara heldu gabe: Zuloaga, Iturrino, Sánchez Mazas... Askok dira euren ibilbide politikoa behar bezala ezagutzen ez ditugunak”.

Gehiago argitze aldera, Ahaztuak 1936-1977 memoria historikoaren aldeko elkartera jo dugu, eta Martxelo Alvarez kidea itaundu: “‘Bigarren lerroko’ gizon hauek zokoraturik geratu dira, normalean ardura politiko edo militar argiagok zituzten pertsonengan erreparatu baitugu. Gero, noski, pertsona batek izen zehatz bat ikertu ahala deskubritzen joaten gara zer-nolako gauzak egin zituen... Muguruzari buruz ez genuen ideia handirik”.



Pedro Muguruza eta Franco diktadorea Valle de los Caídosko lanak gainbegiratzen. Frankismoaren sinbolo nagusia den monumentua diseinatu zuen elgoibartarrak. Haren eraikuntzan ehunka langile preso hil zirela diote zenbait iturrik.

Harrigarria bada ere, Juan Ramon Garai memoria historikoan adituak ere ez zuen Muguruzaren berririk, eta arkitektoaren soslai frankista azaldu bezain laster, Alejandro Goicoechea gerrako Burdinazko Gerrikoaren egilea eta ondoren faxisten aldera pasa zena datorkio burura. “Nahiz eta artista oso onak izan, biek frankisten alde egin zuten eta euren ingurua beraiek hazteko aprobetxatu zuten. Ez dute kale-izenik merezi”, azaldu du tinko.

Memoria historikoarekin konprometiturik diren Alvarezek eta Garaik arkitektoaren berri ez izatea adierazgarria da oso, argi erakusten du iragan ahaztuaren berreskuratzek oraindik bide luzea duela urratzeko. Batik bat Muguruza Donostia eta Bilboko Jesusen Bihotza irudien egilea dela kontuan harturik: “Bilbokoan eta Donostiakoan askatasun osoa izan zuen nahi zuena egiteko”, azpimarratu du Egañak.

Jesusen Bihotza: frankismo lausotua

Euskal Herriko bi hiriburuen bihotzean dauden irudi erraldoiok jende anitzek egun ez ditu diktadurarekin lotzen. Alvarezek nabarmendu duenez, “nazional-katolizismoaren inposizioaren bi erreferentzia ditugu, baina figura erlijiosoak izanik, hori ‘lausotua’ dago gaur. Hura eraiki zuena eta bere zergatiak

aztertzen ez badituzu, ez zara konturatu ere egiten”.

Bilboko Jesusen Bihotza 1927. urtekoa da. Nolanahi ere, istilu sorrarazi zituen: “Errepublikara garaian kentzeko agindua eman zuen Udalak eta izugarritzko eztabaida sortu zen. 1933 hasieran batzar batean bozketa egin eta hura kentzearen aldekoek (sozialistak eta errepublikarrak) gehiengoa lortu zuten, orduan desagiteko agindua eman zuten”, azaldu du Egañak. Hala ere, ondoren epaitegietan auzia irabazi zuten irudia mantentzearen aldekoek eta bertan behera geratu zen afera.

Donostiakoa, ordea, beranduxeagokoa da: “Errepublikara garaian herritarren dirua batzeko kanpaina erraldoia antolatu zuten, baina azkenean proiektuari uko egin zion Udalak”, azpimarratu du donostiar historialariak. Frankisten estatu kolpearen ondoren, proiektua berreskuratu eta aurrera atera zuten 1950ean. Demokraziaren lehen legealdian eztabaida berriz piztu zen hirian, baina hura ere bertan behera gelditu zen.

Gauzak hala, zer egin beharko litzateke bi irudiok? Egañaren iritziz Donostiakoa “ikur frankista garbia” da, “hiriko eta Madrilgo gobernuen babesa izan zuen; erregimenaren askatasun eta laguntza osoa, diktaduran ezin baitzen ahoa ireki ere egin”.

PEDRO MUGURUZA OTAÑO

Aldiz, frankismoaren ikurtzat ez dela jo behar dio Javier María Sada kronista donostiarak: “Proiektua lehenagokoa da, eta ideologia nazional-katolikoarena bada ere, ezabatu behar badugu, frankismoan inauguratutako eta euren politikaren arabera egindako hainbat ospitale, institutu eta eskola ere eraitsi beharko genituzke. Dena edo deus ez”. Sadak gaineratu duenez, uneotan jada ez da “erlijio-sinboloa, hiriko totem estetiko” baizik.

“Hamaika hilabetez ikusten egon nintzen Donostiakoa Martuteneko espetxetik”, dio Garaik, 1969an ETAko kide izan zen garaiak gogoan. “Ni orduan kentzearen alde nengoen; orain ez dut iritzirik. Hori baino gauza garrantzizkoagorik bada egiteko gaur egun: frankisten kale-izendegiak eta Valle de los Caídos, esaterako”. Alvarezek honakoa gehitu dio hitzoi: “Pedagogia egin beharko litza-teke jendeak jakin dezan zergatik

Donostiako Urgull mendian dagoen Motako gaztelu historikoaren gainean eraiki zuen Muguruzak hormigoizko piramidea 1950ean; haren gainean jarri zuten Jesusen Bihotzaren irudia.

KUTXA FOTOTEKA

egin zuten hura, baina beste maila batean daude Valle de los Caidosekin alderatuz gero, nahiz eta arkitekto berak eginak diren”.


Elgoibarko Udalak, kalea mantenduko du

Pedro Muguruza Elgoibarko adopzio-seme izendatu zuten 1943an, eta seme kutun 1946ko abuztuaren 8an. Hori gutxi balitz, herriko kale batek bere izena ere badarama. Alfredo Etxeberria alkatearen hitzetan, “seme kutunaren kontuan ez gara sartu azterketa sakon batean; ez dugu planteatu; egin beharreko lana da, baina ez da premiazkoa”. ARGIArekin egon eta denbora gutxira, Elgoibarko Udalak iragarri du eraikinetako frankismoko plakak kenduko dituela eta Muguruzaren izendapena bertan behera utzi behar den aztertzeke moztioa aurkeztuko duela. Aldiz, kale-izena bere horretan mantenduko du.

Elgoibar 1936 memoria historikoaren aldeko elkarteko Hodei Otegi kideak gogor salatu du afera: “Orain urte batzuk alkateari zuzenean eskatu genion kale-izena kentzeko, baina erantzun borobilik ez zuen eman, ez zela kontu horretan sartuk”. Etxeberriak argi du ordea: “Kalearen izena aldatzeko asmorik ez dugu: bere garaiko arkitekto bat izan zen, garrantzia izan zuen, zibila zen eta ez militarra. Gainera, kargu publikodun politiko edo enpresari ospetsuen kasuan, kale-izena aldatzea gomendatzen du Eusko Jaurlaritzak, baina tokian tokiko korporazioek izena mantentzeko. Ez da derrigorrez bete beharrekoa, udal bakoitzak erabaki behar du bere kale-izendegia”.

Adibide gisa, Elgoibarko Nafarroa Plaza jarri du alkateak, jatorriko izena berreskuratu baitute: Kalebarreneko Plaza. “1936ko irailan Navarra batailoia sartu zelako, militarrek zirelako aldatu dugu. Oso nabarmena zen; beste garrantzi bat du. Pedro Muguruza kaleari, ordea, beste irakurketa bat eman behar zaiola iruditzen zait”.

Horrez gain, Elgoibarko udal buruak honako galdera luzatu du: “Dena ez da zuri edo beltz. Pedro Muguruza kalean bizi direnei izena aldatu edo ez galdetuz gero, ea zer esaten duten. Kaleari izena aldatu arren, jendeak beti deituko lioke Pedro Muguruza. Gainera, gauza batzuk egunera daitezke, irakurketa aldatu, beste esanahi bat eman. Bere historia ere baloratu behar da. Adibidez, Morkaiko mendi gailurrean den gurutze erraldoiaren zergatia eta betidanik Morkaiko Mendi Elkarteko armarrarian agertu



Goian, Muguruza Elgoibarko seme kutun izendatzen duen agiria. Eskuinean, izendapena eskuetan duela.



dena”. Ez aldatu izanaren beste gakoetako bat, akaso, Otegik eman digu: “Kontua da herriko testigantzek ez dutela gaizki hitz egiten Muguruzaz, eta kasuren bat ere topatu dugu bere senitartekoa kartzelatik atera zuena eta abar. Beno, betiko joko bikoitz hori: espeteratu lehenik eta gero kaleratu”.

Hamaika kaletan diktaturako plakak badi-rautela ere gogorarazi du Elgoibar 1936 elkarteak eta 2008an gutuna bidali ziotela Udalari, Memoria Historikoaren Legearen arabera ikurrak ken zitzan. “Eusko Jaur-laritzak irizpideak bidali berri dizkigu –zioen Etxeberria alkateak, Udalak plakak kentzea erabaki aurretik–, eta auzotarrei euren erai-kuntzan zer plaka mota dagoen adieraztea eta kentzea gomendatzea da gure ideia. Gero, beraiek erabaki beharko duten kendu ala ez. Elgoibarren pixkanaka kentzen ari gara, zorionez ez baitira plaka handiak”.

Hondarribian, adopzio-seme

Baina Muguruzak ez du soilik kalea bere herrian, Madrilén ere badu. Hondarribian

berriz, adopzio-semetzat dute, hainbat erai-kin egin zituelako. Bertako Udaleko Lupe Olaskoaga zinegotziak dio arkitektoa “oso ezaguna” dela herrian: “Gauza asko egin ditu”. Frankismoan izan zuen garrantziaz, hala esan digu: “Ez dut ideiarik horretaz. Ezin dut ezer esan, ez dakit eta”. Segidan, Udaleko beste pertsonaren batekin hitz egin behar dugun ere galdetu diogu: “Ez digute ezer aipatu horretaz, beraz, pentsatzen dut beste norbaiti deituta ere, berdina esango dizula”. Gaia jorratuko duten itaundurik, honatx erantzuna: “Komentatuko dugu, baina besterik ez”.

Honenbestez, zer egin Pedro Muguruza-ren gisako pertsonaiekin? Egañak argi du dik-tadura garaiko pertsonaien inguruan “ezta-baida sakondu” beharko litzatekeela. Izan ere, “euren lana bere osotasunean kontuan hartu beharko litzateke, testuinguruan koka-tu; gehienetan bere alde politikoa lausotzen

HAMLET

MARTXOA
28 Ermua
30 Agurain

APIRILA
4 Donibane Garazi
5 Markina
10 Eibar
11 Andoain
12 Bidarte
26 Aulesti

www.hamlet.kz

Valle de los Caídos

PEDRO MUGURUZAK ez zuen soilik arkitektura zibilean parte hartu, frankismoaren eraikin handi eta sinbolikoena ere osatu zuen: El Valle de los Caídos. “Bere gain hartu zuen eraikuntzaren ardura eta egilea ere izan zen” dio Jesús Gutiérrez historialariak. “Francoren proiektu pertsonala zenez, diktadurako hainbat eragile eta artistek hartu zuten parte; Muguruzarena gurutzea da”, zehaztu du Iñaki Egaña historialariak.

Gerraosteko Euskal Herria eta Espainia suntsiturik zeuden eta berreraikitzeke agindua eman zioten Muguruzari. Hala, Irun, Hondarribia, Zarautz eta Elgoibarren eraikin zibil asko egin zituen. “Erronka garrantzitsua zen, baina kanpora begira, Valle de los Caídos zen inportanteena”, azpimarratu du Gutiérrezek. Izan ere, jende askok ez daki Franco eta Primo de Rivera faxistez gain milaka errepu-



Francisco Franco (erdian) eta Pedro Muguruza (eskuinean) Valle de los Caídos eraikitzeke lanei egin bisita batean, agintari eta presoak ondoan dituztela.

blikar lurperaturik dauden mausoleo horren egilea denik. “Euren bakea sinbolizatzen zuen, eta garai- le eta galtzaileak zeuden lurperatura”, gogoratu du Gutiérrezek.

Nolanahi den, memoria historikoaren inguruan iritzia bakarra da: “Orain frankisten monumentua da, beraz, Primo de Rivera eta Franco hortik kendu behar dira”, dio Juan Ramon Garai idazleak. Bat dator Martxelo Alvarez Ahaztuak 1936-

1977ko elkarteko kidea: “Guk betidanik defendatu dugu; lehenik, Franco eta Primo de Riveraren gorpuzkinak atera beharko lirarteke, bigarrenik, ahal dela bertan metaturik diren milaka errepublikarren gorpuzkinen identitatea jakin behar dugu, senitartekoek gorpuzkinekin zer egin erabakitzeke. Hirugarrenik, erregimen frankista zer izan zen salatzeko zentro bilakatu dezatela, memoria demokratikoa defendatuz. Eta

azkenik, sinbologia eta pedagogia aldetik garrantzitsua da haran horretako gurutze erraldoia erais- tea”.

Azkenean, frankismoaren monumenturik sinbolikoena ezin izan zuen amaiturik ikusi Muguru- zak: 1959an inauguratu zuten, baina elgoibartarra jadanik hilik zen; pixkanaka areagotzen zihoa- kion paralisi batek eraman zuen 1952. urtean.

baita. Frankismoan aukera izan zutelako egin zituzten lan horiek, gainontzeko artista gehienek izan ez zutena, erbestean zeudelako. Batzuk, behartuta, baina, beste batzuk boron- date osoz, sistema totalitarioaren adar bat osatu zuten. Askoz zintzoago jokatu beharko genuke gaiarekin”.

Alvarez, berriz, harago doa: “Egiten ari zaren ikerketa honekin eta antzekoekin jakin

ohi dugu memoria historikoaren aldeko elkarteok ere ezkutuan egondako pertsona horiei buruz. Hainbat udaletan sinbolo eta izendegi frankistak ezabatzeko proposame- nak aurkeztuko ditugu laster, eta orain, Muguruzari buruz hori jakinda, bere figura ere aztertu eta aurkeztuko dugu Elgoiba- rren”. ■



ZUREA GURE,
GUREA ZURE

ikusteko
www.hamaika.tv

LTD nahiz Euskaltel (11 eta 911. kanalak)

YouTube Twitter Facebook

PERTSONAIA

MARINA RUIZ

«Gorputza, mugimendua eta espazioa dira nire baliabideak»

Dantzari eta koreografo da Gasteizen. Horrekin batera, hizkuntza politika eredugarria du euskaldunberri zahar honek. Natural-natural nahi du dena.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco



Hizketan ez zarela trebe, esan diguzu.

Jendaurrean hitz egin behar baldin badut, urduritzen naiz. Edo nire hitzak dena delako aldizkari batean agertuko direla baldin bada-
kit, berdin. Hitza ez da nire adierazpidea. Urtean zenbait dantza emanaldi aurkeztu behar izaten ditut, eta saiatzen naiz gauzak nola diren hitzez azaltzen, baina nik, auke-
ran... dantza egingo nuke!

Emanaldiak esan duzularik, Gasteizen zarelarik ere modurik naturalenean egiten dituzu jendau-

rreko aurkezpenak euskaraz. Eusko Jaurlaritzak berak baluke zer ikasi zure hizkuntza politikatik!

Natural-natural egiten dut. Gainera, badakit hemen, Gasteizen, beharrezkoa dela horrela egitea. Gutxitan erabiltzen da euskara. Hona etorri nintzenean helduen artean gutxi-
ten euskaraz Araban. Haurrek, aldiz, bazeki-
ten, ikastolan edo eskolan ikasita. Gurekin dantzan ikasten ari ziren haurren emanaldiak egiten hasi ginenean, pentsatu nuen: “Zer pentsatu behar dute umeek hizkuntzari buruz?”. Eta aurkezpenak euskaraz egitea

erabaki nuen. Lehenengo euskaraz, eta gero nire lankideak gaztelaniaz. Baina haurrei, esaterako, euskaraz zuzentzen natzaie. Baten batek ez badaki, euskaraz eta gaztelaniaz. Ez dago problemarik. Asmatu egiten dugu problema! Urte hauetan, guztietan behin esan zidan batek, adineko batek, zergatik jardun nuen euskaraz. Minduta eraso zidan gainera. “Gaztelaniaz ere esan dut, ordeal”. Pertsona batek. Behin. Natural jardun behar dugu.

“Gasteiza etorri zinenean”, esan duzu. Beasaindik etorri.

Beasaindik, bai, baina ez zuzenean. Bartzelonara joan nintzen Psikologia ikastera. Artean ez zegoen Zorroagarik. Bellaterran egin nituen ikasketak. Haur psikologia klinikoa. Baina dantza gustatzen zitzaidan. Beti gustatu izan zait dantza. Txikitan, Beasainen, dantza taldea oso gauza itxia zen, baina talde hartako batek zenbait dantza erakutsi zizkigun kuadrillakooi: sagar-dantza, Pello Joxepe eta beste. Zoriontsu nintzen! Etxean, berriz, beti ari naiz mugitzen, hara eta hona. Ama berriz, paretik kentzeko ari zitzaidan beti. Gogo hori betidanik izan dut. Bartzelonara joan nintzenean, lehenbiziko gauza izan zen dantza ikasteko leku bat bilatzea.

Dantza klasikoa, dakidanez...

Bai. Behin, gurasoak ezkontza batera joan ziren Madrilera eta, itzulian, puntadun oinetakoak ekarri zizkidaten, gorriak. Haiek jantzi arteko onik ez nuen izan. Hartzen nuen gortina bat gerribueltan eta dantzan hasten nintzen. Esaten dizut, lehenengo, euskal dantzak izan ziren. Gero, klasikoa. Bartzelonan, unibertsitatean, gorputz adierazpena egiten hasi ziren. Eta San Cugatena, berriz, dantza klasikoa ikasten. Gustura ibili nintzen bietan ere. Ikasketak bukatu eta han bertan geratzeko ahalegina egin nuen, baina ez zitzaidan nik nahi nuen bezala irten eta Beasainera itzuli behar. Ez nuen nahi, e!

Ez zenuen nahi...

Ez. Baina Beasainen ikusi nuen euskal dantzak egiten ibilitako neska batek estudioa jarri zuela. Kontxi Aranburu zen, ordiziarra. Eta harekin hasi nintzen. Asko ikasi nuen Kontxirekin, asko... Orduan hasi nintzen euskara ikasten.

Euskara ikasten? Ez al zenekien, bada?

Ez, bada. Gure etxean ez ziren euskaldunak.

Ama hizkuntza euskara zenuelakoan nintzen!

Euskaldunberria naiz, euskaldunberri zaharra, kar, kar, kar. Bartzelonatik itzuli nintzen eta, ordurako, anaia zaharrenak bazekien euskaraz. 1977tik 82ra Bartzelonan izan nintzen. Bost

Ezinduak

“Deialdi berezirik egin gabe ere, minusbaliotasunen bat duten haurrak etortzen zaizkigu.

Haietara moldatzeko ahalegina egiten dugu, eta beraiek ere egiten dute. Batzuetan, zailagoa da minusbaliotasuna ez dutenak tratatzea. Hala ere, uste dut naturaltasunez hartu behar dugula elkar, arazoak asmatzen ibili gabe”.

urte haiek oso inportanteak izan ziren euskararentzat Beasainen, eta Gipuzkoan. Akordatzan naiz Beasainera itzuli eta bermuta hartzerara joan ginela hiru neba-arreba. Eta euskaraz hasi ziren bata besteari! Esana zidaten gauskolara joaten zirela, baina euskaraz ari zirela ikusi nuenean... “Kabroiak halakoak!”. Beti ikasi nahi izan nuen euskaraz! Eta haiek ikasi zuten, eta nik ez. “Orain hemen zaude, ikasi beharko duzu zuk ere”. Bai, horixe! Katalanez gehiago nekien nik euskaraz baino. Zer edo zer ulertzen nuen euskaraz, besterik ez. Ikastan hasi nintzen, eta ikasi nuen.

Erraz esan duzu...

Hala da eta! Ikasi nahi baduzu, ikasten duzu. Gogo da inportanteena. Eta irakasleak ikasleak bezainbesteko motibazioa baldin badu, nahikoa, hortxe koktel onena. Eta nik koktel horretatik edan nuen Lazkaon eta Hondarribian.

Barnetegian.

Hondarribian bai. Lazkaon ez, Beasainen nintzen. Dena dela, lehenengo baserri batera joan nintzen, Aramara. Ausarta, ni!


Joxean Sagastizabalen Kutsidazu bidea, Marina...

Zer edo zer ulertzen nuen, inguruan entzunda. Osabarenean, bizilagunaren etxean... Kanean ez. Gure garaian euskara gutxi Beasaingo kanean. Esan nahi dut belarria pixka bat eginda nuela. Baserrira joan nintzenean, aldiz, lanak! Bazen bat, Pello izena zuen, gaztelaniaz hitzik ez zidala egingo erabaki zuena. Hura estutasuna! Batzuetan, bizikleta hartu eta etxera joaten nintzen, amarekin gaztelaniaz hitz egitera. Oroitzapen ederra dut baserrikoa.

Jendaurreko aurkezpen horietan euskararen aldeko jarrera, eta hizkuntza eta komunikazio

NORTASUN AGIRIA

Marina Ruiz Valverde (Beasain, 1960). Dantzaria. Txikitandik da porrokatua. Haur psikologia klinikoa ikasketak egin zituen Bartzelonan eta hasi zen dantza ikasten. Klasikoa. Gerokoa du dantza garaikidea. Dantza klasikoa ez bezala, askatasuna esan nahi zuen garaikideak. Gorputza, mugimendua eta espazioa nahieran erabiltzeko bitartekoa zitzaion. Gasteizko Traspasos dantza konpainian da joan deneko hogeitun urtean, Marga Arroyorekin batera. Hainbat ekitalditan parte hartu ohi du, dantza eta askotariko koreografiak lagun, eta zenbait taldeekin kolaboratu du. Oraindik orain egin du koreografia berria Panta Rhei taldearentzat.



politika hori ikusi eta jaiotzatik euskalduna zinelakoan ni.

Ezetz, bada! Horrexegatik dut jarrera hori, niri falta izan zaidalako. Hizkuntza bat ikasteko, entzun egin behar duzu, hitz egiten dela ikusi. Horretan ari naiz ni. Gainera, euskara ikasi, EGA titulua atera, eta Arrasatera joan nintzen euskara irakastera euskaltegi batera. Deialdi irekia zen. Neure burua aurkeztu, eta hartu ninduten. Bi urte egin nituen han. Baina Arrasaten dantza ikasteko modurik ez. Karate egiten hasi nintzen, baina ezin nuen. Eta, horretan, Gasteiz ezagutu nuen, nik ez nuen-eta hau ezagutzen. Arrasateko lagunak hona etortzen ziren, eta ni haiekin. Eta gustatu Gasteiz. Hemen dantza egiteko aukera zegoen. Hezkuntza ordezkari izena eman honako, ordezkapenak egiten hasi, eta Gasteizen naiz harrezkero. Eskolak ematea gora-behera, dantza egiteko aukera nuelako.

Eta egin zenuen, egin zenuenez.

El Patio izeneko estudioan hasi nintzen 1987an, eta han dantza garaikidea ezagutu nuen. Kubatarra genuen irakaslea, Arnaldo Paterson, Kubako balet garaikideko zuzendari izana. Haren bidez heldu nintzen dantza garaikidera. “Dantza garaikidea, hauxe da nireal!”. Halako batean, Paterson Donostiara joan zen, eta Traspasos honetako jendea ezagutu nuen 1988an: Marga Arroyo eta Mikel Gomez de Segura. Klaseak jasotzen hasi nintzen. Ikuskitzen bat zuten eskuartean, eta tailer bat jarri zuten martxan. “Parte hartuko zenuke?”. Eta baietz. Laster, eskolak ematen hasi nintzen. Umei irakatsiko ote nien galdetu zidaten, eta ordurako nik ume artean ikusten nuen nire burua, baietz. Hurrena, helduekin. Horrela, konpainia osatu genuen, eta diren eta ez diren frontoi guztietan egin genuen dantza. Gazteak ginen! Gazte eta indartsuak! Furgoneta erosi, zertzak, fokuak... Dena.

Garaikidea hobetsi zenuen, ez klasikoa.

Klasikoak teknika eta forma lantzen ditu, batez ere. Garaikideak aldiz, teknika ez ezik, besterik ere bazegoela erakutsi zidan. Nire iritziz, dantza garaikidearen barruan zernahi egin dezakezu, ez duzu araurik. Inspirazioa izan, nahi den musika jarri, eta aurrera! Nahi dudana egin nezake. Beharbada horixe gustatzen zait, mugarik gabe dantza egitea. Ez dakit.

Hogeita bost urte iaz Traspasos dantza konpainiak.

Bai, urte asko hemen Margak eta biok.

Matrimonio askok baino gehiago!

Bai, horixe! Izatezko bikote ere bagara gu, kar, kar, kar. Krisialdiak ere izan dira proze-

Blandine Calais

“Mugimendurako anatomiaz baliatzen gara gu, Blandine Calais-Germainen teknika. Dantzaria zela, lesio larria izan zuen aldakan, eta fisioterapia lantzen hasi zen. Hortik abiatuta sortu zuen Mugimendurako anatomia eta hortik ari gara gu duela hamabost urtetik hona. Haren bidetik, ikusi nuen dantza klasikoan lantzen ziren hainbat teknikak ez ziotela gorputzari batere onik egiten. Calais-Germainek beste bide bat ireki zidan, lehengoa berraztertu eta aurrera egiteko bestelako ikuspegia”.

suan, baina krisialdian, beti pentsatu dut elkarrekin egiten duguna bakoitzak gure aldetik bakarrik egiten duguna baino hobea dela. Eta uste dut egia dela. Talde bat gara hemen. Maien Boixek, esaterako, lindihop, areto dantzak eta beste irakasten ditu. Rosa Lahoz ere gurekin da, flamenko irakasle. Urte mordoa daramagu elkarrekin.

Ikusiak ditut zure koreografia zenbait. Musika aukerak harritu nau, batean tango, bestean trikitixa...

Horrela gustatzen zait niri, eta horixe da gure filosofia. Margak, esaterako, koreografia bat egin du Mikel Urdangarinen musikarekin. Tartean, neska batzuk dantzan, baina ez euskal dantzarik, dantza garaikidea baizik. Oso lan polita. Dantza garaikideak hainbat nahasketak egiteko aukera ematen dizu. Egin ondoren, bestek esango du ondo dagoen ala ez, gustatzen zaion edo ez. Teknika bera baino inportanteagoa da gorputz ezaguera. Mugimendu organikoetatik teknikara egitea dago-kigu. Gainerakoan, teknika hutsa gauza hotza da.

Zertan dira dantza modak? Batean, sevillarrak; bestean, saltsa eta merenge...

Horrela da, bai. Eta gero, sabel-dantza etorri zen. Edo capoeira! Ez dut teoriarik landu, baina uste dut telebistak sekulako indarra duela horretan. Nahikoa da Shakira pantailan agertzea dantzan, polit eta ondo, jendeak huraxe egin nahi izateko. Telebistak markatzen du moda.

Dantza garaikidea, berriz, behin ere ez da boladan, behin ere ez modatik kanpo ere.

Horixe esango diet nire lankideei, kar, kar, kar. Egia da, bai, egia. Saltsa eta gainerakak oso dantza sozialak dira, tabernan bertan egin ohi dira. Garaikidea, aldiz, ez. Osasungarria da, batetik, sasoiaren egoten laguntzen digulako, eta bestetik berriz, artearekin ere badu ikustekorik. Konbinazio ederra da...

Koreografiak ematen dio dantzari arte dimentsioa?

Galdera bihurria da hori! Hainbat dantzarik ez ditu ohiko koreografiaren urrats guztiak betetzen, ikusleak ez ditu pauso guztiak argi eta garbi ikusten. Sentitzen duena azaltzen du dantza bidez, musika lagun. Hori artea da. Batzuetan sentsazioa bera da jarraibidea, inprobisazioa... Polita eta interesgarria izan liteke. Dantza garaikideak aukera handiak ematen ditu, antzerkiarekin loturak ere badi-tu, ez antzerki tradizionalarekin, baina bai esperimentalarekin.



AZKEN HITZA

Katalanez

"Bartzelonara joan nintzenean, katalanez ari ziren unibertsitatean, Psikologia fakultatean. Protestak ere izan ziren, ez pentsa. Baina laster konturatu nintzen lehenengo hilabetea orduko, katalana ulertzen dugula. Ez da euskara. Frantses pixka bat jakinez gero, eta gaztelania jakinda, nahikoa da katalanez ulertzeko. Ez nuen protesta ulertzen. Euskaldunak ere kontra ziren, gero! 'Zer ari zarete zuek? Euskara berreskuratu nahi duzue, eta katalanez irakastearen kontra?'".

Zergatik jotzen du gizakiak dantza egitera?

Antzinako tribuak ikusi eta dantzan ari dira ospakizunean, euria behar dutenean edo hainbat momentutan. Mundu sakromagikoa da dantza. Niri barrutik datorkit. Azkena, Ezkaraitik Valgañonera gindoazen, mendiz. Gauza guztiak sintonian zetoze sentitu nuen: neure pausoak, lainoa, txintzarri hotsa... Sentitzen hasi nintzen –lehenengo, sentitzen–, eta koreografia bat egin nezakeela pentsatzen. Silvia San Miguel pianistarekin hitz egin nuen eta bat egin genuen. Lehenengo, sentitzea da beti. Ondoren, ofizioa dator, ideiak gauzatzea.

Zenbait ekitaldi "zibiletan" ikusi zaitugu koreografiak osatzen. Maria de Maeztu Forum Feministaren 25. urteurreneko ospakizunean Gasteizen. Dantzaz baliatu zara, edo koreografia baten parte jardun duzu...

Feminismo munduan ikusten dut neure burua. Salaketa egiterakoan ere begirada berria eskaini nahiko nuke, jendeak pentsa dezan: "Zer ari dira, ordea?". Maria de Maezturen saio horretan, Carmen San Estebanek zuzendu zuen ekitaldiaren gidioa. Nork bere saiotoxa egin zuen, batak pianoa

Argia

"Dantzak argia behar du, antzezpenak bezala. Argiak giro ezberdinak sortzen ditu. Era batera egin, bestera egin... Begiak dena ikusten du. Aldiz, fokua han edo hemen jarritz gero, argiak seinatzen duen huraxe ikusten du begiak. Keinurik txikiena ere bai!"

jo, besteak gerraz hitz egin... Ni, esaterako, zerba-sorta hartuta joan nintzen, neure burua eta airea laztantzen, zafratzen. Gizarteak emakumeari agintzen dion rolaz gogoe-ta egin nahi nuen. Rol horrekin nola egiten dugun bat, batzuetan, eta nola ez gauden ados, berriz, beste batzuetan. Zerba-sorta zimelak mugimendu politak egiten lagundu zidan.

Abortu Legearen kontra ere jardun duzu Arabako Emakumeen Asanbladarekin batera.

Andre Mari Zuria plaza ondoan, Posta kalean jarri ginen hainbat emakume, bi ilaratan, belauniko, diru eske Londresera abortatzera joateko. Oso fuertea iruditu zait abortu kontu hau. Aspaldi egin nuen borroka hori! Badakit zein zen egoera garai hartan, abortua legeztatu baino lehen, esan nahi dut. Ez zait burutik kentzen nola hil zen neska bat gure herrian... Oraingo lege hau atzera joatea da. Hitza ez da nire baliabidea, ez dut nire burua afixak egiten ikusten. Bizitza honetan nire baliabideak gorputza, mugimendua eta espazioa dira. Kalea espazio eszeniko bat da, denon borrokak adierazteko lekua. Arte eszenikoek esateko asko dute gauzak salatzerakoan, protestari beste forma bat emateko balio dute. Hor ikusten dut nire burua, beste hainbat jendekin batera. ■



KUADRILLA ARTEKOA

urtarrilak 18 - apirilak 5

Apirilak 5, kristo guztia Agurainera

www.bertsozale.com/araba

argia

Bazkaldu al dezake sagardotegian begetarianoak?

Haragijaleen munduan menu begetarianoa dastatzeko aukera, horixe da Iparragirre sagardotegiak Hernaniko Osinaga auzoan (Gipuzkoa) eskaintzen duena. Beno, hori eta sagastien ondo-ondotik AHTko obren bisitatxoa, zulo sakonez eta hormigoizko pareta sendoz edertutako paisaia. Baina itxaron, zer zen menu begetarianoaren kontu hori?

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

SAGARDOTEGIAK badoaz pixkanaka nor bere izaera hartzen, dauzkaten baliabideen arabera desberdintasunak markatzen. Batzuek ingurua darabilte, beste batzuek irisgarritasuna, eta badago bestelako aukerak eskaintzeko ahaleaginean menu zabalagoa daukanik ere. Horixe izan da Iparragirre sagardotegira gerturatzeko aitzakia: otordua. Betiko bakailao tortilla, bakailao frijitu eta txuleta menuak aterata —eta aukera hori kendu gabe, noski—, begetarianoak ere sagardoa probatzera gerturatzeko arazorik izan ez dezaten, eurentzat menu berezia eskaintzen dute orain hiru-lau urtez geroztik. Sagardo ekologikoarekin eta

Labelarekin hasi ziren garai horretan, eta edarian ez ezik elikagaietan ere kalitatezko produktua zaindu nahi zutela azaldu du Arantxa Eguzkitza sagardogileak.

Badira urte batzuk, otorduetako eskaintza zabalagoak ezagun direla sagardotegietan. Hainbatek arraina saltsan jartzeko aukera ematen du, beste hainbatek haragi desberdinak, tortillan ere bariatatea egoten da leku batzuetan eskatuz gero... Sagardo denboralditik kanpo urtean zehar irekitzen dutenek ere aprobetxatzen dute eskaintza zabaltzeko, otordu ekonomikoagoak eta abar. Iparragirreko menu begetarianoa sagardo denboraldirako sortu zuten, ohiko menuaren prezioan: pate begetala, etxean egindako berdura purea edo potajea, entsalada epela txanpinokiekin, hamburgesa begetala eta postrea berdina, gazta, intxaur eta menbrilloa. Aurtengoa berritasun batekin datoz, Aste Santutik aurrera ere asteburuetan irekitzeko apustua egingo baitute. Kasu honetan, sagardoa botilaratua izango dute mahaian bezeroek, eta agian txotxerako kupelen bat-edo zabalik. Bezero kopurua garai horretan gutxitu egiten denez, bertako produktu ekologikoak eskaintzeko apustu sendoagoa egiteko asmotan dabilzala azpimarratu dute etxeok. Momentuz, janariarekin ez dira produktu ekologiko ziurtatuetan sartzen, nahiz eta horra bideratzeko asmoa duten.

Bertako produktuekin ahalegintzen dira, euren baratzeokoen, inguruko baserriarrek eskaintzen dutenarekin. Sagardo ekologikoaren eta bertakoaren bidetik joko dutela argi du Arantxa Eguzkitzak. Sagardo ekologikoa egiteko etxeko sagastietako sagarrak erabiltzen dituzte —Abiadura Handiko Trenak txikitu dizkien sagastiek jada ez dute fruiturik ematen, baina bizirik diraute beste batzuek—

Menu anitzak

Iparragirren (telefonoa: 943 55 03 28) bezala begetarianoa ez, baina menuan eskaintza desberdinak egiten dituzten zenbait sagardotegi:

- Zalbide (Abaltzisketa, Gipuzkoa).
943 65 21 76
- Elorrabi (Hernani, Gipuzkoa).
943 33 69 90
- Urdaira (Aginaga, Gipuzkoa).
943 37 26 91
- Olagi (Alzaga, Gipuzkoa). 943 88 77 26
- Kalonge (Igeldo, Gipuzkoa). 943 21 32 51
- Añota (Azpeitia, Gipuzkoa). 943 81 20 92
- Petritegi (Astigarraga, Gipuzkoa).
943 45 71 88
- Astarbe (Astigarraga, Gipuzkoa).
943 55 15 27
- Laka Erdi (Berriatua, Bizkaia).
608 67 32 08



Menua osatzeko, bertako produktuekin ahalegintzen dira Iparragirre sagardotegian, euren baratzeekin, inguruko baserritarrek eskaintzen dutenarekin

eta ez dute logiko ikusten Euskal Herritik 1.000 kilometrora dagoen beste herrialde batetik sagarrak ekartzea ekologikoaren izean, ez behintzat iraunkortasunaren ikuspegitik. Hortaz, elikagaiekin ere bide bera jorratzen ari dira, bertako produktuak eta ekoizle txikiak bultzatuz.

Dastaketa saioak

Iparragirrekoek ez dute ahazten eurak sagardogileak direla, euren produktua sagardoa dela eta beste aspektu batzuetan egiten ari diren hobekuntzak beharrezkoak badituzte ere, edariari etengabe begira egotea nahitaezkoa dutela. Bezeroari sagardoa probatzera hurbil dadin aukerak erraztu behar zaizkiola garbi daukate, eta horretarako lehendik ere buruan zerabilten proposamena zabaldu diote publikoari: probaketa. Azken batean horixe da behar dutena, sagardoa gustatzen zaion jendeak euren probatu eta ahal izanez gero erostea. Beraz, asteazkenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara sagardoa dastatzeko aukera dago Iparragirren, nahi izanez gero pintxo eta guzti, edo gustukoago bada etxetik bokadilotxoren bat eramanda.

Gainera, orain gutxi etxea berritu behar izan dute eraikinak zeuzkan pitzadura eta desplazamendu batzuk medio –eta badirudi

ez ziotela mesede egin egunero etxetik pare bat metrora pasatzen diren 50 bat kamioiren pisu eta mugimenduak—. Sagardotegia berritzen hasita, sagardogintzari zuzendutako espazioa prestatzen ari dira. Lehen jangelan kristal baten atzean erakusketa moduan jarri- ta zeukaten tolare zaharra lekuz aldatu eta publikoari irekita martxan jartzekotan dira,

garai bateko ekoizpena nola- koa zen ikusi ahal izateko. Horrekin batera, azalpen taula- txo batzuekin eta argazkiak tartekatuz sagardogintzaren historia eta prozesua ezagutze- ko aukera edukiko du gertura- tzen denak, eta kata gune bat ere jartzekotan dira, sagardoa, bertako produktuak eta ekolo- gikoak ardatz hartuta. Ez dago guztiz bukatu- ta, eta apirila-maiatzetako irekitzeko asmotan dabilta.

Aipatu berri ditugun beste hainbat eskain- tzaren artean menuarena nahiko ohikoa iza- tera iristen ari da sagardo munduan. Horren barruan baina, ez da hain ezaguna menu begetarianoarena. Haragia eta arraina datoz- kigu burura sagardotegiez pentsatzean, batzuk horixe jateko gogoz eta

beste batzuk urteroko zalandan, ezin badut jan zertarako joan? Bada, menu begetarianoa izan liteke aukera bat. ■

Sagardogintzaren espazioa prestatzen ari dira: tolare zaharra publikoari irekita martxan jarri, azalpen taulatxoak eta argazkiak tartekatu, kata gune bat ezarri...



Salda eta konpainia banatzen

Etxerik gabekoek osatzen dute gure hiri eta herrietako kolektiborik baztertuenetakoa. Iruñean, lo egiteko aukeratzen dituzten lekuetatik erronda egiten dute Paris 365 jantoki sozialeko hainbat boluntariok, salda beroa eta konpainia eskaintzeko.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

SALDA BEROA du izena ekimenak eta iragan urtean jarri zuten abian, Nafarroako Unibertsitate Publikoko talde batek Iruñeko karriketan lo egiten duten lagunei buruzko azterketa egin ostean. Zerbitzuaren arduradun Dori Iriartek dio kalean lo egiten dutenen profila eta jantoki sozialera doazenena oso desberdina dela, etxe premia eta behar ekonomikoak izateaz gain, problema erantsiak zamatzen baitituzte. Batzuk alkohola edo bestelako drogen menpe bizi dira, beste hainbatek buru arazoak dituzte, edo legez kanpo bizi diren etorkinak dira, laguntza oro ukatzen zaizkienak. Azterketaren arabera, karriketan bizi diren gehienak gizonak dira, 40 eta 45 urte bitartekoak, eta Iruñeko Alde Zaharrean eta Zabalgunean ezartzen dira batik bat.

Karriketan lo egiten dutenek, eskuarki, bakardade sentimendu oso sakona dute. Salda Beroa proiektua “karrikako jendearekin egoteko aitzakia hutsa da, beraiekin solas egiteko, konpainia egiteko. Jendea ezin da zopa bakar batekin elikatu. Karrikan lo egiten dutenekiko gertutasuna bilatzen dute boluntarioek”, azaldu du Iriartek. Nafarroako hiriburuan erroldaturik ez daudenak karrikan bizitzera derrigortuta daude, Trinitarios-eko aterpetxeak soilik hiru egunez egoteko baimena ematen baitie. Iruñean bi urtez egon behar duzu erroldan izena emanda, aterpean jarraian lo egin ahal izateko. Hotzaren aurkako protokoloa aktibatzen denean baino ez dira zabaltzen denentzat aterpetxeko ateak; hots, tenperatura 3 gradutik beherakoa denean.

Karrikaz karrika abiatu gara

Arratsaldeko zazpiak laurden gutxian geratu gara, Paris 365eko atarian. Euria gogotik ari du. Gaur lau lagun elkartu dira: Asun, Antonio, Mikel eta Javi. Abendutik martxora ateratzen



Irudian, Paris 365 jantoki soziala, kanpotik. Bertako lau boluntarioekin ibili gara Iruñeko karriketan zehar, aterpetxeetan lo egin ezin dutenei salda, lo zorroak eta konpainia pixka bat banatzen.

dira, urteko hilabeterik hotzetan, astelehen eta asteazkenetako. Furgonetan salda-termoa, motxilak eta lo egiteko zorroak sartu, eta abiatu gara. Autobus geltoki zaharraren ondoko eraikin handi baten sotoan egin dugu lehen geldialdia. Adats luzeko gizon bat lurrean etzanda dago, maindire potolo batzuen azpian; aulki gurgildun baten gainean berriz, bi hankak ebakita dituen gizon edadetu bat;

eta haren giblean, bere alaba, 30 urte bete gabeak dituen. Elkarren artean errumanieraz mintzo dira, eta gaztelaniaz kostata egiten dute. Zulo honetan zazpi hilabete daramatzate. Aterpetxetik laster bota zituzten. Zopa banatu eta lurrean etzanda dagoen gizonari lo egiteko zorroa eman diote, kartoi puska baten gainean lo egiten baitu.

Bigarren geldialdia Rodezno Kontearen Plazan egin dugu. Plazako arkupeetan elkartu dira inguruan lo egiten duten magrebtarrak. Zopa ekarri eta edaten duten bitartean eurekin hitz egiteko probestu dugu. Batek kontatu du Marokon kimikaria zela, eta Bartzelonan hogeitaz lan horretan jardun zuela. Karrikaz karrika segitu dugu eta Sarasate Pasealekuko kutxazain batean bi lagun aurkitu ditugu: 72 urteko gizonezkoa, Avilan jaioa; eta gazte andaluziar bat, oso berriak. Zopa eman beharrean zergatik ez diogun euro bat ematen galdetu digu, “tabakoa zopa baino beharrezkoagoa” baitu. Boluntarioek erantzun diote dirua ematea debekatua dutela.

Bueltan kontatu didatenez, gazte andaluziarrak buru arazoak ditu, eta mediku batengana eramanez nahiko lukete, baina berak ez du nahi. Gauak eta euriak basamortu bihurtu dituzte Iruñeko karrikak. Zabor-kamioiaren zaratak hausten du etxeetan, eta kutxazainetan, lo egiten duen hiri honen isiltasuna. ■



Seme-alabek etxean bizitzen jarrai dezaten borrokatuko dut

Karmele Lopez de la Manzanara dut izena eta 38 urte ditut. Hiru seme-alabekin bizi naiz Bilbon. Langabezian nago eta gure etxea galtzeko arriskuan gaude, baina behar adina borrokatzeko prest nago hala gerta ez dadin.



9, 11 ETA 15 URTEKO hiru seme-alaba ditut. Horregatik eta lanik ez dudalako, 800 euro inguruko laguntza jasotzen dut. Kontu korrontea baliogabetu didaten arte, horietako 400 Kutxabank-i gure etxebizitzaren hipoteka ordaintzera bideratu ditut, eta beste erdiarekin lauron gutxieneko beharrizanak asebate ditugu.

Seme-alaben aita ez da gurekin bizi, bananduta baikaude. Hala ere, etxebizitza bion ize-nean dago, eta hari dagokion hipotekaren beste erdia ordaintzea. Dirudien ezin du zati hori ordaindu, eta haren atzerapenen gaineko interesak niri ari zaizkit eskatzen. Hasieran 10.000 euro inguru baziren ere, interes tasa izugarriak direla-eta, berehala egin du gora. Nahiz eta Mario Fernandez Kutxaban-keko presidenteak publikoki esan atzerapenei dagokien interesa %10ekoa dela, %19a ezartzen digute guri. Salaketa jarri diet, eta epaile batek gure hipotekak neurritz kanpoko klausulak dituela onartzea lortu dudari arren, gastu judizialak gehitu dizkiote nire zorrari.

Hasieran zorra kolpetik kitatzeko eskatu zidaten; eta ezingo nuela ikusita, hilean 1.000 euro ordaintzen ahalegintzeko iradoki zidaten gero. Baina 800 euroko diru-sarrerekin, ezinezkoa zait. Hortaz, gaur-gaurkoz, gure etxebizitza galtzeko arriskuan gaude. Nire esku dagoena egingo dut adostasuna lortzeko. Hori bai, tratuak bermatu behar du nire seme-alabei jaten eman ahal izango diedala.

Zorionez, ez nago bakarrik: Bilboko etxebizitzaren kontrako mugimenduekin harremana dut eta lan izugarria egiten ari den jendea dago. Berriki Maite izeneko burkidearen

eta haren alabaren etxebizitza gelditu dugu, langabetuen asanbladaren laguntzarekin. Ezinbestekoa da beste batzuen babesari sentitzea, psikologikoki oso gogorra delako zure etxebizitza galduko duzun beldurrez bizi beharra.

Baina oraindik ere jende gutxiegi mugitzen da. Beldurgarria da bankuek zenbat botere duten, erakunde publikoak zein pribatuak dituzte haien esanetara. Herritarrok aurre egin behar diegu, gaur ni nagoen bezala, bihar beste edonor egon baitaiteke etxebizitza galtzeko arriskuan. Haserrarazi egiten nau bankuek jendearen lana eta sufrikarioarekin negozioa egiten dutela pentsatzeak. Dirua baduzu, munduko pertsona garrantzitsuenak zarela sinetsarazten dizute; dirua ez duzue aldiz, pertsona ere ez zarela dirudi.

Nire kasura itzulita, ziurtasunez esan dezaket datorrenari aurre egingo diodala; borrokatu egingo dudala, nire seme-alabengatik bada ere, haien etxean bizitzen jarrai dezaten. Umeak ohiko ingurunetik ateratzeko ondorio larriak eragin ditzake. Hori gutxi balitz, etxebizitzarik gabe geratzen banaiz seme-alabak kendu ahal izango dizkirate, eta hori ez dut inondik inora onartuko. Ez dut egun bakar bat ere pasako haiek nirekin izan gabe. ■





**June
Fernández**



KAZETARIA

Ez naiz gai

EZ NAIZ BRIKOLAJE ZALEA. Txikitan erabaki nuen eskuekin ez nintzela trebe, eta hortik aurrera bonbillak aldatzea izan da etxean egindako lanik konplexuena. Managuara bizitzera etorri naiz, eta hemen etxeak hutsik, altzaririk gabe, alokatzen dira. Oihalezko armairu bat eta oinetako altzari oso sinple bat erosi eta nik muntatu ditut, plano a begiratzuz. Ez dauka misteriorik, baina trebe sentitu naiz. Hurrengo erronka egurrezko taula bat lixatzea eta margotzea izango da, apal bezala erabiltzeko.

Beste anekdota bat: Managutik gertu dagoen urmael famatu batera joan nintzen bainatzera orain dela gutxi. Ur gainean egurrezko plataforma batzuk daude, jendea eguzkipean etzanda erlaxatzeko, aintzirako mugimenduak kulunkatua. Gizonezko lagun batekin joan nintzen eta bera, eskaile-rak erabili orde, pultsuan igo zen. Nik esan nion argi neukala ez nintzela horrela igotzeko gai, ez baitaukat indarririk besoe-tan. “Saia zaitez!”, esan zidan. Eta nik ezetz. Hurrengo egunean saiatsu nintzen: eskuak taulan jarri, besoen indarra erabiliz gorputza uretatik atera, taulan eseri arte: “Eup!”. Bosgarren saiakeran lortu nuen.

Gizonek gero eta ardura gehiago hartzen dute etxeko lanetan, baina gutxi ikasi dute josten, eta aldi berean, gutxi dira euren kabuz, elektrikari edo igeltsero bati ordaindu orde, etxeko erreformak eta konponketak egiteko nire aitite bezain gai

Seguru asko nire bi lorpen txiki horiek tuntunak irudituko zaizkizue eta ez duzue nire poztasun eta harrotasuna ulertuko. Baina zera gogorarazi didate: “June, ez esan berriro ‘ez naiz gai’. Saiatu”. Haurtzarotik “ez naiz indartsua” eta “ez naiz trebea” ditut garunean grabatuak. Hori dela eta, giharrak atrofiatuta ditut eta ez dut eskuz ezer ere egiten.

Feminista naizen neurrian, sexismoari lotutako irakurketa bat egiten dut. Neska-

tila tipikoa izan naiz: soinekoak maite nituen, balleta egiten nuen, patioan soka-saltoan ibiltzen nintzen eta baloiak beldurra ematen zidan. Orain inbidia ematen didate lagunekin futboleko edo saskibaloian jolastera biltzen diren gizonak. Batzuetan nire neska-lagunekin komentatu dut: “Zergatik ez gara saiatzen? Bost axola baloia behin ere ukitu ez badugu...”. Genero rol tradizionalak gure ahalmenak mugatzen dituzte. Gizonen kasuan txikitan dantzatzeko maritxuen kontua zela uste izateak gozatzeko bidea itxi die, esaterako. Askok sexuen arteko desberdintasunak biologia kontua dela diote, baina hezkuntza eta estimulu guztiz bestelakoak jasotzen ditugun neurrian, nola dakigu hala-beharrezkoak diren ala ez?

Bestalde, hezkuntza berdina zalea jaso dugun belaunaldiok, trebetasuna gehiago garatu orde, gero eta eskasagoa daukagu. Gaur egungo emakume gehienok ez daki-gure amamek bezain ondo janaria prestatzen, baina ez dugu mekanika edo iturgintzari buruz ezer ikasi. Gizonek gero eta ardura gehiago hartzen dute etxeko lanetan, baina gutxi ikasi dute josten, eta aldi berean, gutxi dira euren kabuz, elektrikari edo igeltsero bati ordaindu orde, etxeko erreformak eta konponketak egiteko nire aitite bezain gai.

Aro birtualizatu honetan, uste dut bizitzaren jasangarritasunari lotutako lanei arreta handiagoa jarri beharko geniekela, ekonomia feministak erabili ohi duen kontzeptu hori eguneroko bizitzan praktikara eramaten, eta ez bakarrik zaintza lanen garrantzia aldarrikatzeko, baizik eta, baita ere, rol maskulinoei lotutako trebeziak mantentzeko eta emakumeen jabekuntza prozesuetan gehitzeko. Denok, neskek zein mutilek, genero rolak astinduz, brodatzen zein sarraillak aldatzen gai izatea izan behar dugula helburu. Horrela izango gara gizaki autonomoak eta osoak, gure oinarritzko behar-rak asetzeko emazte, senar edo gurasoen beharrik ez dutenak, eta erantzunkidetasunean oinarritutako harremanak dituztenak. ■





Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



DANI BLANCO

Irudimentsuak

ANTZERKILARIAK ETA DANTZARIAK ameslariak gara ofizioz; irudimena ohiko lan tresna dugu. Behin, sabaia eta lurra besterik ez zituen tailer itxurako orube sakon eta ilun bat erakutsi ziguten, eta guk oso erraz irudikatu genuen bertan aspaldian desio genuen eskola. Burdin herdoildu eta porlan belztuz betetako bazterrera seinatuz “hemen ikasgelak izango dira eta han entsegu-gelak” esan ziguten. Guk zoko ilunera begiratu eta ikusi egin genituen ikasgelak, entsegu-gelak, eta haietan ikasleak ikusi genituen: aktore, teknikari eta dantzari izan nahi zuten gazte eta ez hain gazteak ziren, beren buruak prestatzen, trebatzen ari ziren han bertan, gure begien aurrean.

Hezkuntza sailburuak gonbidapen ponpoxo bat bidalia zigun. 2010eko ekainaren 28rako zen hitzordua, eta eguna iritsita Bilbon, EiTBren egoitzan ginen, zintzo. Eserlekuz beteta zegoen areto handian sartu ginen; aurrealdean hizlari-entzatz tribuna prest zegoen. Akto-reak, dantzariak, zuzendariak, teknikariak, gidoilariak, ekoizleak, kudeatzaileak eta sustatzaileak eseri ginen aulkietan. Arte eszenikoen alorreko ehun lagunetik gora izango ginen.

Sailburuak hartu zuen hitza eta guri zuzendu zitzaigun: “Hemen bertan, eraikin honen beheko

solairuan egingo dugu Eszenika, Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola. Antzerkia, dantza eta eszenoteknia ikasi ahal izango dira hemen. Bi urte barru, 2012ko irailean irekiko ditu ateak Eszenikak.”

Denbora pasa da, eta irudimena eta ilusioa gurekin dira oraindik, eskolaren arrastorik ez ordea. Hamar urtetik gora dira euskal arte eszenikoetako kideak goi mailako eskola baten premia aldarrikatzen hasi zirela.

Denbora pasa da, eta irudimena eta ilusioa gurekin dira oraindik, eskolaren arrastorik ez ordea. Hamar urtetik gora dira euskal arte eszenikoetako kideak goi mailako eskola baten premia aldarrikatzen hasi zirela

mailako eskola baten premia aldarrikatzen hasi zirela. Hain luze jotzen duten aldarrikapenak hoztu eta hutsean geratzeko arriskua izaten da. Honako honetan Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren Aldeko Plataformari aitortu behar zaio eskolarenugarra piztuta eta gure irudimen gaitasuna bizirik eusteko gaitasuna.

Eusko Jaurlaritzaren 2014ko aurrekontuetan bada partida bat arte eszenikoen eskolaren izena daramana. 300.000 euro daude jasota kontusail horretan. Eskola martxan jartzeko gutxitxo, eskolarik gabe jarraitzeko gehitxo. Diru hori xahututa eskola sortzen hasi dela ikusten hasi beharko gineteke. Irudimena ez zaigu agortu, baina larria litzateke datorren urtean eskola ikusteko begiak ixten jarraitu beharko bagenu. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Edonon, edonoiz

IRAGANA etorri zaio gogora, European berriz mapa urratzen ari dela ikustean. Institutuan historia ikasteko erabiltzen zuten liburuko hainbat pasarte ahaztuxe ditu buruan: gatazka kolonialak, Lehen Mundu Gerraren piztea... Duela mende bat Sarajevon gertatutako artxidukearen hilketak Ukrainako Viktor Justxenko presidente ohiaren pozoitzearen antza duela iruditua zaio oroitzapenen soka, eta, batez ere, geroago Ukrainan suertatu diren gainerako guztiek. Krimea barne. Kanpo.

Galdera larri bat kokatu zaio begitar-tean: nola ikasiko dute Europako historia geroke nerabeek? Galderaren epizentro-

an, baina, ez dago liburuaren formatua (paperezkoa ala elektronikoa), ez eta gatazkaren zein alderdik lortuko duen bere kontakizuna nagusitzea ere. Izan ere, oraingo sentsazioa beste bat da: liburu hartako pasarteak edonon errepika daitezke, edonoiz. Odol gose-egarria ez dago gaingitua. Historiako etsaminan buruz idatzi behar ziren istorio haiek posible dira berriz egungo European.

Geroke nerabeek –susmoa du– berak izandako jarrera bera hartuko dute: “Guk sekula ez dugu gerra ergelik ezagutuko”. ■





Aitor Zabaleta

♦ KAZETARIA

Atzerapenak

BILBOKO METROAREN kontra egon zirenek geltoki berriak eskatzen dituzte orain. “Peajerik ez” ziotenek, bidesariz bete nahi dituzte errepideak. Leitzarango autobidea errefusatu zutenek ahaztu dute Azpirozko bide zaharra. Bere garaian Ibarretxeren erabakitze eskubidea gutxietsi zutenek, mantra moduan darabilte orain. Trantsizio denboran Konstituzioaren zein autonomien aurka zeudenak, horien defendatzaile sutsuenak dira gaur egun. Eta bada, zoritxarrez, sufrimendu justifika ezina sortu duen atzerapen larriagorik.

Denok ibili gara atzeratuta noizbait, baina batzuek, muturrekoek batez ere, abilezia berezia daukate horretarako, eta berandu helduta ere, lehenengoak bailiran dabilta harro asko.

Duela gutxira arte ez abertzaleekin akordioa traiziotzat hartzen zutenak, lehenak dira orain hori berori aldarrikatzen, eta asko poztzen dira gainera lortuz gero. Madrilgo Kongresura joatea Espainiaren aurrean belaunika-tzea litzatekeena, aukera ona da orain. Euskal Herrian politika ez zen 2011ko urrian hasi, batzuek horixe sinetsita diharduten arren.

1990eko otsailaren 15ean Gasteizko Eusko Legebiltzarrak onartutako autodeterminazio aldarrikapena “deskubritu” berri dute zenbaitzuek. Eusko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak eta Euskadiko Ezkerrak bat egin zuten proposamena aurrera ateratzeko, Herri Batasunaren oposizio bortitzarekin. Legebiltzarrean azaldu ziren une bakaretakoa izan zen hura, zer eta autodeterminazioaren inguruko akordioari ezetz esateko. Entzutekoak dira Iñigo Iruinek tribuna igota bota zituenak.

24 urteren ostean, Legebiltzarrak akordioa berretsi dezala nahi du ezker abertzaleak. Azkenak lehenak izango dira berriz ere.

Denbora askoz gutxiago pasa da Ibarretxe lehendakariak erabakitze eskubidea hezurmamitu zuenetik. Kasu honetan ere, atzerapena nabari da. Mespretxuz tratatu zutenak, lehenengo ilaran daude orain horren defentsan, ez daukate beste konturik.

Zein ez da aldatu urteen eta egoeren poderioz. Baina aspaldi asmatuta zegoenaz orain ohartu denak ez dago inori leziorik emateko moduan.

*Denok ibili gara
atzeratuta noizbait,
baina batzuek,
muturrekoek batez ere,
abilezia berezia daukate
horretarako, eta
berandu helduta ere,
lehenengoak bailiran
dabilta harro asko*

Partekatutako subiranotasuna da etorkizunari begira izan dezakegun aukerarik errealistena, baita onena ere, seguruenik. Adostutako autogobernua. Gero eta pluralagoak eta konplexuagoak diren gizarteetan bukatu da jabetasun osoa, erabateko agintaritza. Akordio zabalik gabe, nekez egin daiteke bide luzerik. Zentzugabea da krisian dauden egitura berdinak eraiki nahi izatea. Baina horretara ere norbaitzuk berandu helduko diren apustua egingo nuke, nahiz eta gero lehenak direla uste izan. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

**Bixente
Gorostidi
Loidi**



Doinua: Betroiarena.

Fernandoren urtea

Amezketako elbi bat nabarmentzekotan Fernando Bengoetxea dudik ez hortan. Hitza ehotzen zuen senaren errotan hitza zuen arima lurreko pausotan doinuen besotan hitzak lotuz sokan bertso zahar gozotan ta uneko bertsotan beti ibili ohi zen denen ahotan.

Bere belaunaldian hitzaren kapitain eta egunerokoan larrean artzain mingainak nekez egin izan zion labain merezi zuenari erantzunez apain... Amezketar bikain zorrak nola ordain bi mende ta erdi zain ta izendatuz orain ohorezko artzaina eta bertso-zain.

Bi mende eta erdiko ospakizunetan Fernandori buruz gu bertsoz ta hitzetan. Maisuen maisu izan zen elkarriketan eta hitzaren artisau zirien josketan. Ona da plaketan jartzea paretan baina Amezketan bere ohoretan segi zagun bertsotan eta hizketan. ■



ERDIKO KAIERA

GABRIEL OCINA
ESZENIKAREN ALDEKO PLATAFORMA

«Arte eszenikoetan ikasketa ofizialak existitzea da gure kezka»

Bilbo, 1969. Euskal Aktoreen Batasuneko zuzendaritzako kidea da Gabriel Ocina, baita Eszenikaren Aldeko Plataformaren koordinatzailea ere. Sortu zenetik ia hamarkada bat igaro den honetan, plataformak EAEko arte eszenikoen sektorea bildu du aspaldiko eskari baten inguruan: goi mailako arte ikasketak eskainiko dituen zentro bat.

Errealitatea da urteak joan, urteak etorri, Eusko Jaurlaritzak mahai gainean ipinitako proiektuak gauzatzeke daudela oraindik.

| UNAI BREA |

Zergatik Eszenikaren Aldeko Plataforma bat?

2005eko irailean sortu zen taldea, eta hasieran ez zuen izen hori, noski, Eszenika proiektua ez baitzen existitzen. Arte eszenikoen Goi Mailako Zentroaren Aldeko Plataforma zen. Eszenika izena 2010ean aipatu zen lehen aldiz. Eta zergatik? Bada, argi dago. Gaur hemen Euskal herrian [EAEz ari da] ez dago

“Antzerkiaren eta dantzaren arteko harreman sendoa dago, Euskal Herrian garbi ikusten da hori, eta horregatik nahi dugu dena zentro berean egon dadin”.

arte dramatikoa, dantza eta eszenoteknia ikasteko aukera ofizialik, eta hori ez da normala gure ustez.

Unibertsitate mailako ikasketez ari zara?

Gaur egun, [Espainiako] Estatuan ez dago halako ikasketarik unibertsitatean. Baina hori ez da arazo bat. Kontserbatorio eta arte dra-



matiko eskola ofizialak ez daude unibertsitate barruan, baina maila berdina da. Ikasketa horiei, legez, ezin zaie gradu izena eman, baina beste edonondik begiratuta unibertsitateek eskaintzen dituzten graduak bezalakoak dira.

Orduan, Eszenika aurrera aterako balitz unibertsitate bat litzateke?

Goi mailako zentroa izango litzateke. EAEko Hezkuntza Sailak unibertsitatearen barruan egin nahi badu, egin dezala, baina ez da eredu zabaldiena. Gainera, unibertsitateak baditu bere baldintzak, askoz zorrotzagoak. Horrek ez gaitu kezkatzen; ikasketa ofizialak existitzea da gure kezka. Eta errazena zentro artistiko bat sortzea da.

Eszenika proiektua izan bada, administrazioak mahai gainean ipini eta gero bertan behera utzia. 2005ean hasi zineten zentro bat aldarrikatzen. Orduan ere existitzen zen asmoa?

Ez. Guk orduan zer bait sortzeko eskatu genuen besterik gabe, hutsune nabarmena zegoelako EAEn, gure ustez nahikoa lotsagarria. Eta 2006an Gasteizko Legebiltzarraren gehiengoak onartu zuen garaiko Jaurlaritzari eskatzea hori indarrean jar zedin. Orduan egin ziren lehen pausoak, eta arazoa, batez ere, kokapena izan zen. Azkenean, 2007an, Tontxu Campos Hezkuntza sailburuaren eta Iñaki Azkunaren arteko akordioa izan zen, ikastetxea Bilboko Alhondigan egiteko, baina hura bertan behera geratu zen. 2009an PSE iritsi zen Jaurlaritzara, eta 2010ean beste proiektu bat iragarri zuten: Eszenika. Ordukoa da izena.

Zer izan beharko litzateke Eszenika?

Zentro integral bat, bai arte dramatiko (aktoregintza, zuzendaritza, gidoigintza), bai dantza, bai eszenoteknia irakatsiko litzatekeena. Hori baita egungo joera. Antzerkiaren eta dantzaren arteko harreman sendoa dago, Euskal Herrian garbi ikusten da hori, eta horregatik nahi dugu dena zentro berean egon dadin.

Kontua da Eszenika gauzatu gabe dagoela.

Eszenika proiektua 2010ean jarri zuten mahai gainean. Kokapena ere aldatu zuten, bat-batean aukera agertu baitzen zentroa ETBk Bilbon daukan egoitzaren ondoan egiteko. Ikastetxea 2012-13 ikasturtean martxan jarriko zela iragarri zuten, eta horrek sektore osoa lasaitu zuen.

Zer ikasketa eskatzen dute, zehazki?

URRIAREN 11N Eusko Legebiltzarrereko Hezkuntza Batzordean agerraldia egin zuten Eszenikaren Aldeko Plataformako kideek, eta euren ustetan arte eszenikoen goi mailako ikasketen ildo orokorrak zeintzuk izan beharko liratekeen azaldu zuten. Honakoak dira:

- Arte Dramatiko eta Dantza ikasketek bat egingo lukete Espainiako Hezkuntzaren Lege Organikoak eta Europako araudiek (LOE) ezarritakoarekin. Hots, unibertsitateko gradu baten maila bera edukiko lukete, nahiz izen hori ez eduki. Tituluok eskuratzeko launa ikasturte gainditu beharko lirateke.

- Arte Dramatiko ikasketak hiru multzotan banatuko lirateke: batetik, espezialitate guztietan –Aktoregintza, Zuzendaritza eta Eszenografia– berdinak izango liratekeen bederatzi ikasgai, sortze-prozesua ardatz edukiko luke tenak. Aktore, zuzendari zein idazle izateko oinarri teorikoa finkatuko litzateke ikasgai horietan. Bestetik, espezialitate bakoitzera-

ko ikasgai espezifikoak leudeke. Eta hirugarrenik, hautazko ikasgaiak, dantza, antzerki eta eszenografiaren arteko elkarlana bultzatzea bideratuak.

- Dantzari dagokionez, Koreografia eta Dantzaren Pedagogia espezialitateak eskainiko lirateke. Lehen hiru ikasturteak batera egingo litzukete, eta bereizirik.

- Eszenikaren Aldeko Plataformak, halaber, Eszenoteknia titulu bat sortzea proposatzen du. Ikasturte biko iraupena luke, eta argiztapen, soinu eta bestelako teknika eszenikoetan profesionalak trebatzea izango litzateke helburua.

Azkenik, unibertsitatearekin batera masterrak eta doktorego programak antolatzea gomendatzen dute. Plataformak Legebiltzarrari helarazitako dokumentazioan azpimarratzen duenez, bitxia da gaur egun EHUK arte eszenikoen master bat eta gradu-ondoko bat eskaintzea, gradu mailako formazio baliokiderik ez delarik.

Noiz zapuztu zen proiektua, nola?

Batetik, Espainiako Auzitegi Gorenak esan zuen goi mailako arte ikasketak ezin daitezkeela jo unibertsitateko gradutzat –gauza bera badira ere–, eta horrek zalantzak sortu zituen Hezkuntza Sailean. Bestetik, 2012an, legegintzaldia amaitzear zegoela, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak helegitea jarri zuen Jaurlaritzak Eszenika egiteko aurkeztutako proiektuaren aurka, eta epaileak arrazoia eman zien. 2012ko urrirako dena bertan behera zegoen. Halere, arkitektoen elkargoak agerian utzitako irregulartasunak erraz gainditu daitezke, arazo tekniko hutsa da.

Eta horrekin batera berpiztu zen plataforma?

Bai. Baina bitartean beste batzuk iritsi ziren Jaurlaritzara, eta ez zuten gai az ezer esan. 2013ko otsailean bertan, Jaurlaritza berria osatu eta hilabetera, bilera eskatu genion Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuari. Proiektuak aurrera jarrai zezala eskatu nahi genion. Kostata, uztailean egin genuen bilera.

“Ezin dugu pentsatu aktore edo dantzari izateko nahikoa direla dohain batzuk eta gogoa. Hau lan serioa da, eta talentuaz gain teknika ere ikasi behar da”



Jaurlaritzak uko egin zion Eszenika proiektuari?

Ez zuen ezer esan, baina 2013ko martxoko aurrekontu proiektuak ez zuen Eszenika inon ere aipatzen. Horrek kezkatu gintuen.

Zer atera zen uztailero bilera hartatik?

Hezkuntza Sailak esan zigun dena berriro aztertu nahi zuela: zer nolako eskaria dagoen, irakasleen profila zein izan beharko litzatekeen, zer ikasketa eskainiko den... Normala da, garbi hitz eginda, hau sozialisten proiektua baitzen, eta badakigu EAJk ez duela besterik gabe bere horretan onartu eta indarrean jarriko. Bestetik krisiaren aitzakia dago: ez da garai egokia, gastua murriztu behar da...

Eperen bat adierazi dizute?

Joan den urrian Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egon ginen, eta horren ondorioz Legebiltzarrak berriz eskatu dio Jaurlaritzari hau indarrean jartzeko. Gainera, epe zehatza emanda ikasketak has daitezten: 2014-15 ikasturtea. Badakigu, noski, data horretarako zentro berria egokitzea ezinezkoa dela.

Alderdi guztiek bat egin zuten?

Ez, EAJ abstenitu egin zen. Iazko azaroan aurkeztu zituzten 2014rako aurrekontuak eta han ere ez zen ageri Eszenika; orain badago, baina emendakin bati esker. 300.000 euro bideratu dituzte proiekturako.

"Ikasketa ofizialak onarpena emango lioke sektoreari. Arte eszenikoen mailak gora egingo luke, eta eskari kopuruak ere bai"

Ez da asko holako proiektu baterako...

ETBren ondoko egoitza egokitzeak zazpi milioi euro beharko lirateke. Musikenerekin, esaterako, tirabirak egon ziren, diru asko kostatu zelako, eta batzuek esan zutelako "hara, zer garestiak diren arte ikasketak". Bada, bai. Dena den, musikan ikasle/irakasle ratioa askoz txikiagoa da, askotan ikasle bakarrekoa irakasle bakoitzeko, eta beraz askoz ikasketa garestiagoak dira. Kontuak kontu, guk ez dugu zentro erraldoi bat eskatzen, txikia eta kalitatezkoa baizik. Bai, baliteke ikasketa mota hau garestia izatea beste batzuekin alderatuta. Gobernuak, eta jendarte osoak, erabaki beharko dute merezi duen ala ez.

Esan duzu Jaurlaritzak eskaria aztertu nahi duela. Zure ustez, nolakoa da eskari hori?

Egon badago. Gaur egun eskola asko dago irekita EAEn, eta urteak daramatzate lanean, bai antzerkigintzan, bai dantzan... Antzoki sare indartsua dago, antzerkia eta dantza ikusteko ohitura dago. Eta bokazioa ere badago, leku guztietan bezala.

Hortaz, pentsa liteke formazio aldetik gure beharrianak asetzeko adina azpiegitura badugula. Alegia, zentroa aldarrikatzeak ez lukeela zentzurik, ikasketok tituluz apaintzetik harago. Zein da aldea? Non dago jauzi kualitatiboa?

Tituluak badu bere garrantzia, arlo guztietan bezala. Medikua edo irakaslea izateko titulua behar da. Bai, badakit, desberdina da, baina ez da hain desberdina. Antzoki batera lanean sartzeko ez dizute eskatuko Aktoreen Kolegioko Agiria, egia, baina ezin dugu pentsatu aktorea edo dantzaria izateko nahikoa direla dohain batzuk eta gogoia. Hau lan serioa da, eta talentua izateaz gain, teknika ikasi behar da.

Bide batez: zer jarrera dute eskola pribatuak Plataformaren aldarrikapenarekiko? Azken batean, zentro ofizial batek kalte egingo lieke.

Eskola horietako asko Plataforman daude, egon. Garbi dago Eszenika gauzatuko balitz egoera aldatuko litzatekeela, baina zentro ofizialak eta ikasketa arautuak dauden lekuetan badaude eskola pribatuak. Bizikidetzaz hori beti egon da. Negozio aldetik kalte? Uste dut egokitu beharko liratekeela. Batzuetan ez da kaltegarria, alderantziz. Ikasketa ofizialak existitzeak onarpena emango lioke sektoreari, ospea. Arte eszenikoen mailak gora egingo luke, oro har, eta horrekin batera eskari kopuruak ere bai. Antzerkia eta dantza oso eremu zabalak dira, eta eskola ofizialean irakasten ez dena zentro pribatuak irakats daiteke. Pribatuak beren eskaintza egokitu beharko dute, erakargarriak izateko. ■



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikarle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia


1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI VITI



Helduen Literatura

Hunik arrats artean
Anjel Lertxundi
Lur, 1970

Noizbait hasten baita

BERROGEITA LAU urte luze eta oparoko ibilbide literarioa noizbait hasiko zen. Eta abiapuntua *Hunik arrats artean* honetan kokatu behar. 1970. Gutxigatik, Rafael Berrioren diskorik merezi ez duen urtea. Ipuingintza huskeria izatearen ustetik libratzen ari zen garaia. Anjel Lertxundi “izan zen lehena, Martin Ugaldere ondoan, ipuina modu sistematikoan lantzen eta genero honi literatur balio osoa ematen”, esango digu Izagirre-Mendiguren tandemak. Ipuin liburuaren azal hegala mintzo zaigu orain, akaso ausarki, estreinakoa baitzen, hogeita bi urterekin argitaratua: Anjel Lertxundi “euskal literaturako ipuinegileen artean onenetako bat da”. Hasier Etxeberrriaren *Bost idazle* elkarrizketa liburuan aitortzen du Lertxundik azal hegal horrekiko ahalkea; berak idatzi ez zuela aitortzeaz gainera.

Emaizta gogoangarrienak nobelagintzan aitortu bazaizkio ere –*Hamaseigarrenean, aidanez, Otto Pette*–, Espainiako sari nazionala saiakera batekin irabazi duen arren –*Eskarmentuaren paperak*–, hasieran izan zen ipuina. Kasu honetan ipuin aski laburra, errebuelarik gabea, ez gutxitan bihurria. Tarteka, hegoamerikarren errealismo magiko deitu hura gogorazten-edo diguna. *Luisa* ipuinean, esate batera, eta ez bakarrik “maitasuna ahaztuta egiten” dutelako; protagonistatik: “hamabi urterekin haurdun zen eta ez zekien aitaren berri. Augusto bere aita izan zeza-

kean. Edo Augusto, bere anaia. Edo Augusto, bere etxean bizi zen lengusua”. Marteka saiakeratxora gerturatzen den ipuina, iritzitik iristen dena: adibide dira *Pentagrama bat osatu ezinean* –abeslariak, “musika fusilatu, hurkatu ditek, hitza salbatzearen”– edota “Bizardunen bizarra eta loretokia” –“Egun, estruktura etsai bat dugu eta ertiliariak dira estruktura salatzailerak”–. Tarteka eta marteka, azkenerako, izateko gure herriaren berri ematen digun ipuina. *At joaten geranean*, erakusgarri gisa: “Literatura eta ertia burgeskeriak dira”, aurrerago esateko “Marx bakarrik irakurtzea da burgeskeria”. Baina, tira, Lertxundik esaten zuen jada, 1970ean dagoeneko: “Snob-zale gehiegi dago gure herrian”.

Berrogeita lau urte ez dira alferrik pasa, ordea; gauza batzuetan, onerako gainera: “Ba diat nik lagun bat astero *Zeruko Argian* idatziazarren xentimorik kobratzen ez duena”. Lertxundiren obra gerora hazi da, sendotu, gaingitu ditu hasierako ipuin haiek. Baina ia mende erdi bat geroago irakurririk, eta emailu batek kolpatzen digun bezala, “nekerik gabe atzemango dugu idazle baten sena bideratu zuela genero baztertu honek”. Ibilbide literario luze eta oparoena ere, beti, noizbait hasten baita. ■

Aritz Galarra



bardoak 2014

naifarreako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



harrapazkaria

argia



MARTXOAK 28 OSTIRALA

Iruñeko Iruña taldea elkarte, 21:00etan, bertso-merendua
12 OBARIO ETA 11 PEDRADA - HARRAPAZANK

MARTXOAK 29 LARUNBATA

Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarte, 19:00etan, bertso-merendua
BERTZE MALDIKOAK - ETXKO KONTUK

MARTXOAK 29 LARUNBATA

Igantzioko Biltoki elkarte, 21:00etan, bertso-afaria
ZORTZIKO HAUNDIENA - LEPATANATUEK 2, TXAPIROEN ITZULERA

MARTXOAK 30 IGANDEA

Leitzako Atekabeltz gaztetxean, 18:00etan, bertso-merendua
HARRAPAZANK - 12 OBARIO ETA 11 PEDRADA

Informazio osoa eta zurrerak

WWW.BERTSOZALE.COM



Hardcorea baino gehiago

ERRITMO BIZIAK, doinu mardula, gitarra zorrotzak, melodia itsaskorak, erraz gogoratzen diren leloak eta arretaz landutako ahotsak entzun daitezke Enkoreren *Kanala* bigarren disko luzean.

Faktore komunak (2013) haien aurreko disko luzea entzunez gero nabarmena da taldeak 80ko hamarkadako AEBetako hardcore melodikoa atsegin duela, eta lan berrian estilo horren zantzuak suma daitezke, baina kantuetan denbora erdiko erritmoak, astunagoak diren beste batzuk, pasarte samurrak eta beste hainbat ezuste aurki daitezke. Grabazioan, besteak beste, pianoa eta organoa erabili dituzte, eta egin dituzten hainbat moldaketa hardcore talde batean ez dira ohikoak.

Enkore taldeak jotzen duen musika hardcorea baino gehiago baita. Zenbait kantuk pop edo rock kutsua dute, eta beste hainbat kantutan giro hunkigarriak ere gauzatu dituzte. Azken batean, taldekideak heldutasun puntu batera iritsi dira, eta kantuak osatzeko ukitu eta xehetasun egokienak bilatu eta aurkitzen dituzte.

Enkore taldea Bilbokoa da. Xabi Hoo (ahotsa) Urtzi Iza (gitarra), Aitor Gallastegi (baxua) eta Alvaro Olaetxea (bateria) dira taldekideak. Grabazioa saioetan, Kauta taldeko Mikel Morenok eta Hesian taldeko Zuriñe Hildagok ere parte hartu dute, eta ederki aritu dira *Begiak itxi* eta *Ozen oibukatu* kantuetan abesten, hurrenez hurren.

Halaber, grabazioan, produktore batekin aritu dira lehen adiz, Jagoba Ormaetxearekin, eta beren sustraiak alde batera utzi gabe, taldekideek moldaketa berri batzuk probatu dituzte haren laguntzaz.

Hitzetan, eguneroko bizimoduan ikusten edo sentitzen dutenaz zuzen mintzo dira: “Azken juizioaren ordua heldu da; biktimak izan arren, gaizkide gara” (*Gaizkide gara*).

Abiadura bizian kantuan aurrera begiratu behar dela diote: “Helmugarik gabeko trena hartu dugu; atzean utzitakoa ahaztu, arnas hartu eta aurrera; gogoak, kemena, grina, ilusioa eta indarra gure bide-lagun dira; ametsak etengabe berrituz, ezin gara gelditu azken geltokian”.

Kanala
Enkore
Oihuka, 2014



Borrokatzearen beharra ere aldarrikatzen dute: “Libre bizi, borrokatu; askatasun ametsak egi bihurtu; maite duguna defendatu; entzun gaitzaten ozen oihukatu!” (*Ozen oibukatu*).

Beren barrura ere begiratzen dute —“Zerotik hasi nahi nuke, ni neu izateko; bihotza biluztu larrutik haratago, ni neu izateko”. (*Ni neu*)—, eta maitasuna eta gai samurrak ere ukitzen dituzte: “Jolastu nahi baduzu, jolas dezagun izaren artean; biok bakarrik gaude, lotsarik ez da; eta marraztu ditzagun kolore bako haragizko tximeletak” (*Izaren artean*); “Airea izan nahi dut; zure hasperen bakoitzean nik aire izan nahi dut” (*Airea*); “Hemen gaude elkarri begira, sekretuen berotasunean; engaina nazazu, esan egongo garela... elkarri begira” (*Begiak itxi*); “Hemen nago, bai, zure ondoan; oihuka ezazu berriz nire izena, eta betiko zurekin izango nauzu” (*Zure ondoan*).


Enkore 2009an Bilboko Errekalde auzoan sortu zen. Urteotan, oihartzun handia lortu dute. Bi EP (*Multiplu Komunitateko Txikiena* eta *Zatitzaile Komunitateko Handiena*) eta single bat (*Zer Garen*) beren kabuz ekoitzi ondoren, 2013an *Faktore Komunak* lehen disko luzea kaleratu zuten. Disko horretako hainbat kantuk Euskadi Gaztean arrakasta izan zuten.

2011n Gaztea Maketa Lehiaketako epaimahaiaren saria lortu zuten, eta beste hainbat lehiaketatan ere sarituak izan dira: Bilboko talde berrien lehiaketa, Bizkaia TV maketa lehiaketa, Banden Lehia 2010, Barakaldoko Pop-Rock Lehiaketa Nazionala 2010, Leioa Pop-Rock 2011...

Euskal Herrian ez ezik, Europako beste hainbat herritan ere aritu dira jotzen. Guztira, 70 emanaldi baino gehiago egin dituzte haien ibilbide laburrean. ■

Joxi Ubeda





Euskal Herria ezagutuz
BOLINTXU (BILBO)

Supersurrek mehatxatutako arnasgune naturala

Gezurra dirudi porlana nagusi den hain inguru handian Bolintxu moduko berdegune natural batek bizirauteak.

Zoritxarrez, laburrerako izan daiteke Bizkaiko Foru Aldundiak Supersur errepidea luzatzeari ekiten badio. Momentuz ez da eperik zehaztu, baina proiektua onartuta dago. Noiz arte eutsiko dio Bolintxuko haranak paradisu natural izateari?

| MARIJO DEOGRACIAS |

Argazkiak: Iñigo Azkona

METROPOLIAREN Hegoaldeko Saihesbidea, edo nahi izatera, Supersur, A-8 eta A-68 errepideen arteko karreju “naturala” da. Lehenengo fasea amaituta, errepidearen hamazazpi kilometro daude erabilgarri 2011ko irailetik, Santurtziraino heltzen direnak. Bigarren fasea, Bilboko Peñasal eta Arrigorriaga-ko Beteluri auzoak lotuko dituen (3,4 kilometro), egin barik dago. Oraingoaz, beraz, aukera badaukagu Bolintxu haranaz gozatzeko. Bilboko Metropoliaren inguruetak leku enblematikoa da Bolintxu, baita Bizkaiko Foru Aldundiarentzat ere.

Horrela jasota dator behintzat Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideko 9. tartearen (Peñasal-Beteluri) Trazadura egiteko proiektuaren Ingurumen Eraginaren Adierazpenean.


Naturgune aberatsa

Saihesbidearen bigarren zatiak Bilbo eta Arrigorriaga elkartuko lituzke, A-68 autobidearekin lotura zuzena lortzeko. Lanek hasiera izango lukete Arnotegi mendian eta amaiera, aldiz, Seberetxe, Buiagoiti eta Beteluri auzoetan. Tartean, Pagasarri mendiaren oinetan, Bolin-



txuko troka sakona ukituko lukete, “esangura bereziko ingurunea, naturaren eta paisaiaren aldetik dituen balioei dagokienez”.

Bolintxu haranaren zati handi bat haritzek hartzen dute, errekaen bueltan Europar Batasunaren lehen-tasuneko intereseko habitata osatzen duten haltzadiak daude eta Bolintxuko harrobi abandonatuan hegazti harrapariak ugaltzen dira. Mendi taldeek txangoak antolatzen



Bolintxuko erreka uretan iberiar igela edo hankaluzea eta *Coronella* austriarra edo suge liso europarrak bizi dira. Biak ere babestu beharreko espezieak.

dituztenean ere baimena eskatu behar izaten dute, ugalketa prozesu horri ez eragiteko. Pasealeku ederra bakarrik ez, paradisu txiki hau oasia ere bada hein handi batean. Bolintxu erreka urak igel, suge eta anfibio askoren bizileku ere badira; tartean, babestu beharreko espezie birena, 2010ean Gorka Belamendiak egin-dako ikerketan jasoak: iberiar igela

edo hankaluzea, eta *Coronella* austriarra edo suge liso europarra. Are gehiago: narrasti eta anfibioetan Gorbeia-ko parke naturalaren kopuruetan dago Bolintxu, kontuan hartuta bataren eta bestearen tamaina —Bolintxu baino 200 aldiz handiagoa da Gorbeia—.

Hori guztia jakinda, ez da oso ondo ulertzen Supersur errepidea-

ren proiektuaren ibilbidea bertatik egin nahi izatea. Askok azaldu dute horri buruzko kezka. Proiektuaren Ingurumen Eraginaren Azterlanak berak ere 31 eragin identifikatu zituen errepidearen bigarren fasean, eta horietatik hamaika jotzen ditu larritzat: azaleko ur masak jasango lukeenaz gainera, lehentasunezko intereseko habitatak eta intereseko



Supersur autobidearen sarrera ikusten da Pagasarri bidetik. 2013an 11.800 ibilgailuk erabili zuten egunero, Bizkaiko Aldundiak aurreikusitakoaren erdiak.

florak ere jasango lituzkete eragin larriak, paisaiari egindakoaz gain. Bolintxu haranean ez ezik, Arnotegi mendiaren ekialdeko hegalean eta Seberetxeko auzoaren inguruetan ere kalte larriak identifikatzen ditu ingurumen txostenak. Printzipioz proiektuak zuzenean eragingo ez dion arren, ustezko arkeologia gunea ere badagoela gogoratzen du: Arnotegiko iturria.

Pagasarritik Bolintxurainoko jaitsiera

Bilbotik hain gertu dauden paraje horiez guztiez gozatzeko proposa-

mena duzue testu hau, 1.730 metro luze diren tunel bikoitzek eta 166 metroko biaduktoak argazki zoragarria suntsitu aurretik. Bolintxu erreka ematen dio izena inguruosoari. Bilboko sarrera guztietan gertatzen den legez, bertara heltzeko ere jaitsi beharra dago, bai Abusu auzotik, bai Pagasarriren bidetik.

Peñasal auzotik oinez ordu erdi-
ra dago Bolintxuko harana, Pagas-
arri eta Arnotegi mendien magalean.
Aukeran, badago Ganekogorta
kateko mendi ezagunenera igotzeko
bidexkatik heltzea. Esango nuke

**Harrobi zaharraren
ondoan irekitako begi
handi beltzek zaintzen
dute Pagasarri bidea,
baina izan daiteke,
zaintzen barik,
mehatxatzen egotea,
bertan hiltzen den
errepideak bere bidea
egitea erabakitzen badu**

Pagasarrizale (671 metro) gehienek bide horixe erabiltzen dutela. Guk bisita egin dugun egunean, Arnotegira irteera egin duten guraso eta neskato-mutiko koadrila handi bat topatu dugu, bai eta ere Abusuko auzokideak iganderoko txangoa egiten. Haiek azaldu digute ingurunea udaberrian dagoela ederren, natura bizi-bizi dagoen sasoian, zuhaitz guztiak loretan. Zoritzarrez, guri egun euritsuak tokatu zaizkigu, eta erreka bazterretik ez abiatzeko gomendioa egin digute, lupetzaz beterik baitago.

Hala ere, egin dugu oster, zortzi kilometroko ibilbide zirkularra. Abusu auzotik hasi ordez, Igertuko aparkalekutik abiatu gara, Pagasarri bidean dagoen azkeneko parkingetik. Ezkerretara Arnotegira doan bidea dago, eskuinera berriz Pagasarrira igotzen dena. Guk, aldiz, parkingaren barrenetik beherantz egiten duen bidea hartu eta Bolintxu erreka ertzeraino jaitsi gara.

Araztegiko hodia da bidea

Garai bateko Bilboren hazkundeak ez zion eragin Bolintxuri, bai ordea ur araztegiak. 60ko hamarkadaren amaiera aldera jarri zuten harana zeharkatzen duen hodi erraldoia. Handik ekartzen zuten Zadorrako urabilbotarrei edaten emateko. Aurretik, 1923an, beste araztegi bat egon zen inguruan, eta kendu zutenean igerileku ere izan omen ziren presak. Baina 1983ko uriolek desegin egin zituzten eta gaur egun, harri-horma zati bat baino ez dago ikusgai, jausia eragiten duena uraren ibilbidean. Egunotan ikusgarria da ur-jausia. Erreka ondotik dakargun bidexkakharaino heltzeko aukera

emango digu, bai goiko partean bai behekoan ere. Merezi du hurbiltzea erreka ibilbidea zuzen-zuzen ikusteko eta hango zuhaitzen tamainaz ohartzeko.

Bolintxu erreka ertetik ibiltzea, ur kanalizazioaren hodiaren gainetik joatea da. Tarteka, gainera, agerian geratu dira iraganean hondatutako hodiak; beste batzuetan hodia zapaldu beharko dugu, huraxe baita bidexka.

Ikusgarria da, halaber, haran osoa zeharkatzen duen Ur Partzuergoaren hodi erraldoia. Gure ibilbideak hodiari eusten dion biadukturaino eramango gaitu, eta azpitik zeharkatu beharko dugu. Atsedenera aparta suerta daiteke uda partean, erreka freskotasunaz gozatu eta mokadutxo bertan hartzeko.

Abrari begirako igoera

Erreka ondotik egin dugu Bolintxu auzoraino bidea, baina bueltakoa guztiz bestelakoa izango da. Behin errepidera ailegatuta, beti ere erreka ondo-ondotik, ezkerretan dagoen aparkaleku batera joko dugu. Bideari jarraituz Abusura iritsiko ginateke, baina ibilbidearen beste erdia egin nahi dugunez, aparkaleku txiki horretan gorantz doan bidea hartuko dugu. Aparkalekuaren gainean sasoi batean uren estazioa izan zen eraikin erraldoia ikusiko dugu, jauregi itxurako etxe grisa.

Datorrena nahiko bide malkartsua da; kontuan hartu lehen jaitsi dugun guztia igo behar dugula bueltako bidean. Beraz, lasai hartu. Erdibidean, burdinazko ate erraldoia zeharkatutakoan, askaldegi



Abra itsasadarraren ikuspegiak gozatzeko aukera dago Abusutik gora Eguzkialde askaldegira iritsita; Pagasarri bidetik ere bai, jakina.

bat aurkituko dugu, baina merezi du segitzea eta Eguzkialde izeneko parajeraino iristea. Han beste askaldegi erraldoi bat dago, Bilboren ikuspegi zoragarria eskaintzen duena. Eskuineko aldean Abra ere ikus daiteke.

Indarrak berreskuratuta ezkerretik doan bideari segituko diogu, oraingoan bai, zuhaitzez inguratuta —aurretik igo dugun tarte guztian ez dugu zuhaitz bakar bat aurkituko; hortaz, uda partean, adi—. Ezkerreko bidean aurrera eginda azkeneko askaldegira iritsiko gara, Elordira; han bertatik Arnotegira igotzeko aukera ere badago, baina gure helburua Igertuko aparkalekura itzultzea denez beheranzko bideari ekin-

go diogu. Ordu laurdenean iritsiko gara parkingera.

Behin Igertura iritsita, ez ahaztu, Bilbora eramango gaituen Larraskitu bidera iritsi aurretik, ezkerrean begiratzea azkenekoz. Hantxe aurkituko dugu berriro Abrarainoko ikuspegi zoragarria, baita dagoeneko eginda dagoen Supersurraren lehenengo zatia ere. Hiruna erraileko autobidea, bere zortzi ordainlekuekin. Harrobi zaharren ondoan irekitako begi handi beltzek zaintzen dute gertugertutik Pagasarri bidea, baina izan daiteke, zaintzen barik, mehatxatzen egotea, han hiltzen den errepideak bere bidea egitea erabakitzen badu. ■



Erakusketa: 2014-2-8 / 2014-5-25
San Telmo Museoa

GALIARREN ARON

CESAR AURREKO AKITANIA

Bisitak eta jarduerak: www.santelmomuseoa.com

STM San Telmo Museoa

Inrap

donostia.kultura

ELKARREKIA

berria

GAZTE

naiz

san telmo

Gutun Zuria jaialdia

Non: Bilboko Alondegia.

Noiz: martxoaren 27tik
apirilaren 23ra.



Gutunaren beltzak

IZENAK BERA jotzen dizu bozina bi segundoz pentsatzen baduzu: Gutun Zuria? Hori zer da, “*carta blanca*” espresio espainiarraren itzulpen traketsa, ala? *Zehazki* hiztegiak “erabateko esku” ematen dizu arrapostu lokuzio iberikoaren euskarazko ordainaz galdetzen diozunean baina nahiago izan zuten bigarren esanahirik gabeko Gutun Zuria bataiatu Bilboko Alondegian (*Alondegi*: iz. Aleak eta beste zenbait jangai gorde, saldu eta erosteko lokal publikoa) antolatzen duten literatura jaialdia.

2008tik urterokoa bihurtu den zitak hasi baino lehen eman du aurreten titular garrantzitsuena, gehien aipatuko dena: hiru Nobel saridun etorriko zaizkigula Bilbora aizue. Batzuek Herta Müller azpimarratu dute –datozenetatik aupamena jasotzen berriena–, eta beste batzuk, horrelako xehetasunetan sartzeko ere eguzkitan dagoen lehoia bezain nagia. Total, esateko dagoena, argi geratu ez bazaizue, zera da: Bilbok literaturaren Champions Leaguean jokatzeko du –futbolearen ere akaso bai datorren denboraldian, baina zailago izango da beti–.

Yoko Onok duela gutxi gure Kapitalaren kapitalean osteratxo egin eta esan du Bilboko Guggenheim gurago duela New Yorkeko baino. Horrelako adierazpenak, BBK Live jaialdiko kartelburuen iragarpenak, Gutun Zurian izango

diren *superstar* literarioak, denek pack bat osatzen dute eta erosten baduzu, zorionak, urte baten buruan nazioarteko izen entzuteak eta hiri bat, Bilbo, elkarri eskua emanda ikusteko aukera paregabea izango duzu. Munduan gaude lagunok, *Mundu munduan*, nahiz eta Arestiren nobela ez dugun irakurri.

Baina ez ez, nola? Bai zera! Dena ez da atzerrira begiratzea, hiriaren marka saltzea, ho-mo-lo-ga-ga-riak diren ekitaldi kulturalak antolatzea. *Se lo explicamos en castellano para que lo entienda todo el mundo*: “*Gutun Zuria también reservará espacio a escritores vascos como Ramón Saizarbitoria, ganador del Premio de Literatura de Euskadi 2013, Txomin Peillen, Kirmen Uribe o Mikel Urdangarin*” (*El País*, otsailak 17. Mikel Urdangarin idazlea dela deskubritzeko balio izan digun albiste, bide batez).

Problema non dagoen berehala seinatu dizu Iñigo Astiz kazetariak *Berrian*: “Inolako elkarrizketarik ez da izango oholtzan bertako eta kanpotik etorritako sortzaileen artean. Erdal kazetariak elkarrizketatuko dituzte erdal idazleak, eta euskal kazetari eta euskal idazleek euskal sortzaileak. Jaialdi berean dena, baina bereizita dena. Egun batzuetan batzuk. Besteetan besteak. Literatura batetik. Eta euskal literatura bestetik. Euskal izanik, erabat literatura ez balitz bezala. Edo literatura izanik, euskal izate-

rik ez balu bezala”. Eta horrela bizi gara, 2014 betean eta oraindik goizeko lehen kafea kokotsean esku-bidea dugula aldarrikatu beharrean, matrize izan gaitezkeela eta ez osagarri huts, lore nahi dugula izan, ez loreontzi; burua daukagula, ez txapela.

Baldintza hauetan alferrik da. Kontua ez baita Gutun Zuriaren planteamenduan euskarak zer nola lekua duen, berdin antzeko beste jaialdi, ekintza, programetan. Arazoa Bilbo berriaren mitoa da, Guggenheimen eskutik burua altxa zuen zerbitzu-metropoliaren kontakizunak jartzen dizkigun joko-arauak. Mailu mekanikoz jota legeztatu zaigu ideia bat: kompetentzia orain globala dela, prest egon behar dugula, etengabe, gure hiriak munduko merkatuetan lehiatzeko baldintzetan egon daitezten.

Aurtengo Gutun Zuriaren ediziora Gao Xingjian etorriko zela jakin aurretik esana utzi zuen Iñaki Azkuna hil berriak, ekitaldi publiko batean: euskara, baietz, noski, baina txineraz hizketan ikasten hasi behar genuela. Dirua orain han dagoelako. Diru hura ekarri behar dugulako. Diru handia gutxitan dagoelako euskarari. 500eko billeteak lo gutun zurietan. ■

**Gorka
Bereziartua
Mitxelena**



Oinetako minak ez zaitzala geldiarazi

OINEK sarritan jasaten dute urte-sasoiairen aldaketa. Izan ere, udan txankletak edo sandaliak erabili ohi dira normalean, eta udazkenarekin askoz ere gehiago babesten duten oinetakoak janzten hasiko garenez, gure oinek mugikortasun asko galitzen dute. Horrek mina ekar dezake, hasieran arina izan arren denborarekin normal ibiltzea eragotzi eta bizkarreko edo sorbaldako mina eragitera irits daitezkeena.

Non duzu mina?

Mina arrazoi batek baino gehiagok sor dezake, eta zaila da kasu guztietarako balio duten argibide orokorrak ematea. Dena den, tokiaren arabera minaren sailkapena egitea baliagarria gerta daiteke.

- **Oin-zolan.** Arrazoiak bi izaten dira normalean. Batetik, Morton neuroma esaten zaiona: zapata estuak edo punta zorrotzegidunak erabiltzearen ondorioz nerbio bat zanpatu eta inflamazioa sortzea. Bestetik, oin-zolako faszitisa, oin-zola azpialdetik estali eta babesten duen mintza handitzea. Lehen kasuan masaje batek mina arindu dezake —kirurgia azken irtenbidea da—; faszitisa izanez gero, aldiz, min zorrotza nabaritu duzu zutik zauden bitartean, baita ibiltzen hasterakoan ere, goizean ohetik jaikitzerakoan batik bat. Medikuek hanturaren kontrako botikak agintzen ditu normalean, baina kasu batzuetan korrante elektriko txikiak ere erabiltgarriak izaten dira.

- **Behatzetan.** Mina izan daiteke metatarsos zabalegia edo handiegia izateagatik. Baina min ematen duena bereziki behatz potoloa denean, eta gorritua agertzen denean, agian ureazko kristalak pilatu dira bertan eta hezueriaren susmoa baztertu



ALÉS

beharko da. Azken kasu horretan, jan-neurria zaindu beharko duzu: kontuz janari koipetsuekin, mariskoarekin eta alkoholarekin.

- **Oin-ganean.** Oin-gangaren sindromea izaten da kausarik usuen; lotailuaren gain-tenkatze batengatik sortzen da gehienetan. Konponbiderik onena egunean hiruzpalau aldiz izotza jartzea izan daiteke.

- **Orpoan.** Zapata desegokiak eramateagatik muskuluak eta lotailuak behin eta berriz behartzen direnean, ezproi izeneko luzapen modukoak sortzen dira oineko hezurretan. Eta oso mingarriak izatera irits daitezke. Gain-pisuak edo desoreka biomekaniko batek ere sor ditzake.

Beste gaitz arrunt batzuk

- **Juanikoteak.** Kasuen %40 hereditarioak izaten dira, Harvarden Unibertsitateko ikerketa baten arabera. Juanikoteek eragindako mina arintzeko belaki batzuk jartzen dira behatz potoloaren eta

ondokoaren artean. Batzuetan, hala ere, operatzea beste erremediorik ez da egongo.

- **Kailuak, maskurrak.** Hala-koak biguntzeko ona izaten da ur epeletan bainu hartzea. Zenbait kasutan beharrezkoa gerta daiteke aurrez apar-harriarekin leuntzea.

Eguneroko oinarritzko zainketak

Gure oinen azala lodia eta zakar samarra da, baina osasun egoera onean mantendu nahi badugu tratua berezia eman beharko diogu, hidratazio estrarekin batera.

- **Esfoliazioa.** Soberan dauden azalak ezabatzeko, oinak apar-harriarekin, lima batekin edo gel berezi batekin igurtzea komeni da, egunean bitan gutxienez.

- **Hidratazioa.** Erabil itzazu mentolez, aloe veraz (belarminaz) eta glizerinaz prestatutako krema bereziak oinak freskatu eta leuntzeko. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera


web garapenak


multimedia


aholkularitza


edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Birjinaren fruituak

HAZIRIK GABE hazten diren fruituen sokari heldu nion lehengo astean, soka luzea. Sexu trukerik gabe sortutako fruituak dira. Paradoxa baten emaitza dira, fruituaren abortua izan behar bailuke ernaldutako loreen ondorioak... Paradoxak paradoxa, hazirik ez duten fruitu antzuak ere badira. Fruitua beti emeak dakarrenez, birjinak eta amak dira. Izen hori eman zaio landareen gertakari horri: “partenokarpia”, grekoz, “birjinaren fruituak”.

Landare batek berez erabaki dezake fruitu antzuak garatzea. Adibidez, bere ugaltze bidean, fruitua jan eta haziak hedatzen animalia bat du lankide nagusi. Urte batean, bata dela edo bestea dela, ezin badu lorerik ernaltu, animalia hori fruituaren sasoian zer janik gabe geratuko da. Bere lankidea ez galtzeko (gosez hilda, emigratuta...), sexurik gabeko fruituak ekar ditzake, ez ugalketarako, baina bai lankidetzan ari denari eusteko.

Gero fruitu antzu gehiago sorrarazten dugu. Landare batzuek zailtasun handiak dituzte sexuen arteko trukea burutu eta

ernaltzeko: tomateak (*Solanum lycopersicum*), zenbait kuiak eta kurkubik... Ernaltu gabeko lore horiek fruituak ekartzera makurtzeko, hormonak edo tankekoak erabiltzen dira.

Errazkeriagatik sortzen ditugu horrelako fruitu batzuk. Espezie dioikoetan adibidez. Horietan sexu arra eta emea landare bereizietan daude, erabat banatuta. Zer egin? Polena soilik emateko leudekeen ale arrak ez jarri eta denak eme, denak emaille; gero geuk egin behar arraren lana. Horietakoak dira kiwia (*Actinidia sp*) eta kakia (*Diospiros kaki*).

Antzuzale gara, baita ere, fruitua jatean haziak traba gogaikarria direlako: begiratu bananari (*Musa sp*), barruan dituen puntutxo beltz horietako bakoitzak haziak izan behar luke; inork ez luke jango antzua jaten duen erraztasunarekin...

Mahaspasatarako mahatsondoa bezala (*Vitis vinifera Sultanina*),



Anana (*Ananas comosus*), hazirik gabeko fruitu ugarietako bat.

anana (*Ananas comosus*), laranja (*Citrus x sinensis*), pikua (*Ficus carica*) eta indipikua (*Opuntia ficus-indica*), luzokerra (*Cucumis sativus*), pomeloa (*Citrus x paradisi*), angurria (*Citrullus lanatus*), ogiaren arbola (*Artocarpus altilis*), alberjina (*Solanum melongena*), udarea (*Pyrus communis*)... Zenbat fruitu antzu! Hazirik ez duen fruiturik eskuratzeko baduzu, gogoratu: ez da sexurik izan tartean, baina baten batek esku hartu du. Hartu eta sartu... ■



DAVID MONNIAUX-CC BY SA

Baobab txongila

Txongil itxura du baobab zuhaitzak, *Adansonia digitata*. 25 metro garai eta hamar metro diametro haz daiteke. Baita 1.000 urte bizi ere. 200 urtetik aurrera hartzen du, batez ere, txongilaren sabel forma hori.

Denboraren poderioz, barrutik hustu egiten da, eta gutxien uste dugun helburu xelebreenerako erabiliko dute: kartzela, bihitegi, ukuilu, etxebizitza, bilkura areto, kaper... Hustutako zuhaitz horiek lurra eta ura metatzeko ere badarabiltzate. Baten batek 120.000 litro uri euts diezaioke.

Ikusteko aukera onena Madagaskarrera joatea da. Munduan diren zortzi aldaeretatik sei bertakoak dira; beste biak, bat Afrika kontinentekoa eta bestea australiarra. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

· Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
Legutio ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 · lorelan@euskalnet.net


Teknologiaren etorkizuna ezin asmatu

LONDRES, 1876. William Henry Preece (1834-1913) elektrizitate ingeniari eta asmatzaile galestarrak Britainiar Posta Bulegoan lan egiten zuen telefonoaren patentearen berri izan zuenean. “Amerikarrek telefonoa behar dute, baina guk ez; guk mutiko mandatariak sobera ditugu”, bota zuen. 1899an posta zerbitzutik erretiratu zenean, *sir* titulua eman zioten egindako lanagatik —ez aurreikuspenengatik—. Baina Preecearen laban-kada ulergarria da nolabait, batetik telefonoa patentatu eta berehala eman baitzuen iritzia, asmakizunak izango zuen bilakaeraren zantzurik gabe. Bestetik, telegrafiarren eta irratiaeren eremuan jardun zuen galestarrak, eta konpetentzia berria astintzea logikaren barruan egon daiteke. Zailagoa da ulertzea, handik aurrera, komunikazioaren teknologiar buruzko aurreikuspenak egitean, hainbatek bere buruari harrika eman izana.

Thomas J. Watson (1874-1956) IBMko presidentea, esaterako, ez zuen nonbait fede handirik bere enpresaren ildo berritzailean. “Munduan, beharbada, bost ordenagailurentzako merkatua dago”, esan omen zuen 1943an, aipua egiztatuko duen frogarik ez dagoen arren.

Ondorengo aipua *Popular Mechanics* teknologiar buruzko aldizkari ezagunak argitaratu zuen 1949an eta, beraz, zinezkotasuna ez dago zalantzan jartzerik. “Etorkizunean ordenagailuek tona eta erdi baino gutxiagoko pisua izan dezakete” zioen, adorez, 1902an sortu eta oraindik ere argitaratzen den aldizkari artikulu batek. Ezin esan oker ibili zirenik.

Popular Mechanics motz geratu zen aurreikuspenean, eta berdin egin zuen IBMk —berriro ere— 1959an. “Fotokopiagailuentzat, gehienez, 5.000 unitateko merkatu potentziala dago mundu osoan” adierazpena egin zuen enpresa multinazionalaren txosten batek. Watsonen aurreikuspenari zero batzuk gehituta ere, errealtatetik urrun geratu ziren. Hala ere, ulertzekoa da IBMren “ezkortasuna” konpetentziaren merkatuarekiko, urte berean Xeroxek merkaturatu baitzuen lehen fotokopiagailua.



1949an *Popular Mechanics* aldizkari espezializatuak esan zuen etorkizunean ordenagailuek tona eta erdi pisua ez zutela gaindituko. Garaiko ordenagailuak ikusita, aurreikuspena baikortzat jo daiteke.

1977an Ken Olsen DEC (Digital Equipment Corporation) enpresako presidentea haxe bota zuen: “Inork etxean ordenagailu bat nahi izateko arrazoirik ez dago”. Olsenen defentsan esan beharra dago erabat lur jota zegoela IBMk PCa, hau da, ordenagailu pertsonala, merkaturatu zuelako. Presidentearen hitzei jaramonik egin gabe, DECek hiru makina atera zituen IBMren erronkari erantzuteko; hirurek porrot egin zuten.

Bill Gates ahalguztidunak ere ederki erakutsi zuen hanka sartzeko gaitasuna 1988an, “ez dugu sekula lortuko 32 biteko sistema eragilerik” esan zuenean.

1995 urte oparoa izan zen teknologiar buruzko aurreikuspen okerrentzat. Clifford Stoll astronomo, idazle eta “hacker” ehiztariak zera esan zuen: “On-line datu baseek ez dituzte paperezko egunkariak ordezkatuko, CD-romek ez dute irakasleen tokia hartuko eta ordenagailu sareek ez dute gobernuaren lan egiteko modua aldatuko”. Robert Metcalfe, Etherneten sortzaileetako batek, aldiz, haxe bota zuen urte berean: “Internet supernova ikusgarria izango da aurki; 1996an kolapso katastrofiko izango du”. ■



Arrastoak

“Etengabe idazten dizuet, baina nitaz ahaztu zarete”

BANKROFT LIBRUTEGIA



GRANT ADAMSON Rice Unibertsitateko (AEB) graduatu ondoko ikasleak K.o. III. mendean papiroan idatzitako gutun zati batzuk dezifratu ditu. Igorlea Aurelius Polion izan zen, zerbitzua egungo Hungariaren egiten ari zen erromatar legioko egiptoarra. “Gau eta egun osasuna izan dezazuen otoitz egi-

ten dut eta babesten zaituzteten jainkoei gur egiten diet beti”, dio gutunak. “Etengabe idazten dizuet, baina nitaz ahaztu zarete”. Polion ziur zegoen familiak gibela eman ziola, baina adituen ustez posible da gutuna ez iristea, besteak beste, helbide jakinik ez duela-ko, bitartekari baten izena baizik. ■

Antton Valverde & Anjel Lertxundi



apirilak 2
19:30

Ignacio Aldecoa Kultura Etxea.
Floridako ibilbidea, 9. **Gasteiz**

Sarrera librea toki guztiak bete arte.

antolatzaileak:



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava
www.alava.net

laguntzaileak:



«Biktimei eragindako mina ez dela justua izan aitortzea oinarritzkoa da»

HB, Lurraldea, Elkarri, Lokarri eta Baketiken ibili ondoren, Jonan Fernandez (Tolosa 1962) Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkaria da 2013ko hasieratik. Bakea, bitartekaritza lanak, bizikidetzeta eta giza eskubideen esparruetan egindako lanak gorputz sendoa ematen dio zereginari konfiantzatik ekiteko. Lanaren zailtasunen adierazgarri izan liteke: bere hitzei baikortasuna darie, baina aldarteak etsipen kutsu bat ere adierazten du.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Dani Blanco

Eusko Jaurlaritzaren soziometroak bakea eta bizikidetzari buruz emandako datuak aurkeztu berri dituzue. Zer azpimarratuko zenuke?

Politikan ez dagoen adostasuna dagoela gizartean. Gizartean sekulako adostasun zabala dago eta horrek eratzen du gizarte mailako zentralitate etiko eta demokratikoa. Kontsentsuzko puntu horiek nagusi dira hautes-talde guztietan. Baikor izateko aukera ematen du.

Gizarteak modu positiboan ikusten du aurrera begira zabaltzen diren bake eta bizikidetzarako aukerak eta, aldiz, batzuetan entzuten da gizarteak galtzen ari dela gai horiekiko interesa. Kontrajarria dirudi.

Ez. Inkestan ikusten da lehen bakearen gaia arazo handi moduan ikusten zela, eta orain bakerako aukera handi moduan. Gizartearen %81 baikor ageri da gai honen inguruan, baina blokeoa ikusten du.

Horrek esan nahi du gizartearen nahi hori baliatu beharko litzatekeela aurrera egiteko.

Bai, eta gainera alderdien munduan dauden korapilo batzuk gizartean konponduta daude. Adibide batzuk: biktima guztiak berdin tratatu behar

dira, giza eskubide urraketa guztien aurrean behar da konpromisoa, kartzela politika aldatu behar da... Gai horietan eta beste batzuetan oso kontsentsu handia dago eta, beraz, gai horiek garatu egin behar dira.

Bitxia da, garai batean instituzioek gizarteak mobilizatzen zuten ETaren aurka, baina gaur egun ez dute mobilizatzen bakearen alde.

Bai eta hainbat azalpen egon daitezke: bat, orain beste arazo larri batzuk daude, krisia, langabezia... Bi, hainbeste urte gaizki pasatzen ibili eta atentatuaren ondoren, gizarteak lasaitu egin da. Hiru, etorri beharrekoa beranduegi etorri da. Hala

“Ezin dira presoak bakarrik utzi erantzukizun horren aurrean eta bidea erraztu beharko litzateke; beraz, beste norbaitek ere modu kolektiboan iraganaren autokritika egin beharko luke”

ere, soziometroan argi ikusten da bakearena gai garrantzitsua dela gizartean.

Edozertan abiatzeko diagnostiko bat behar da. Bakea eta bizikidetzari dagokienez, nola gaude orain?

Ongi gaude, nabarmen hobetu dugu, baina oraindik asko dugu egiteko.

Bai lehen Elkarrik eta bai orain Lokarrik azpimarratu izan dute bake prozesu batek aurrera egin dezan metodologia funtsezkoa dela. Zein da hemen metodologia?

Bake planak metodologia argia du. Metodologia horrek argi bereizten ditu gatazka politikoa eta, bakea eta bizikidetzeta. Azken bi esparru hauek iragana, oraina eta etorkizuna bakoitza bere aldetik landu behar da. Alderdien arteko elkarriketarako, aldiz, ez dago metodologia bat eta oso garrantzitsua litzateke Eusko Legebiltzarreko Bake eta Bizikidetzeta Ponentzia abiaraztea.

Ipar Irlandan egon zineten iragan urtarilean. Zerk bereizten ditu hango eta hemengo bake prozesuak?

Gauza askok, baina bat azpimarratuko nuke. Han arazo sozial bat

la politika, bizikidetza herrietan, hezkuntza, memoria... eta bilatuko dugu modua.

ETA berandu iritsi dela eta ordainaren eskema agortua dagoela esan izan duzu. Horrek indarrari egiten dio erreferentzia, hau da, badirudi negoziatu edo adostu behar duten aldeetan indarra bada, hitz egitea eta negoziatzea errazagoa dela.

Ez dut uste hori bakarrik denik. Denboraren kudeaketa ona izatea oso garrantzitsua da. Ipar Irlandan 90eko hamarkada egokia izan zen aldeanitzeko prozesua bideratzeko. Agian hemen ere izan dira une egoikiak, baina zuk zure aukerak alferrik xahutzen badituzu, aukerak agortu egiten dira, gizarteak beste alde batera begiratzen du, ez du sinesten.

Baina soziometroak argi erakusten du gizarteak ez duela bestaldera begiratzen. Une honetan, bestaldera begiratzen ari dena Espainiako Gobernua da.

Aljerreko aukeran edo Lizarra-Garaziko su-etenean gizartean sekulako ilusioa sortu zen. Baina gizarteak gero eta gutxiago sinetsi du prozesu hauetan eta hori neurtu egin behar da. Hausnarketa gisa planteatuko nuke egingo dudan planteamendua: ETAk eman dituen pausoak berandu eman ditu eta, neurri handi batean, egungo zailtasun batzuen azalpena hor dago. Baina garrantzitsuena zera da: aurrera begira eman beharreko urratsetan berriz iritsiko da berandu?

Gizartean eta esparru politikoan adostasun oso zabalak daude ETA berandu iritsi den horretan, baina bestetik zera dago, oso aspalditik etengabe esan zaio "utzi armak eta -gai politikoez ezik- denari buruz hitz egin ahal izango da". Baina utzi ditu armak eta orain ez da hitz egin nahi.

ETAr denok eskatu diogu behin eta berriz armak uzteko, eta haiek erabaki dute orain izatea eta denok onartu behar dugu orain dela arazoa konpontzeko unea, baina batzuek esaten dute orain ez dela momentua, eta hor dago arazoa.

Eta orduan, noiz da momentua?

Egoeraren azterketa egiteko eta ez



"Bake Ponentzian Bilduk esan zuen esaldi bati beste zati bat gehituz gero, berak sinatuko lukeela. Hori lortu behar da".

dago eta horrek arazo politikoak eragiten ditu. Hemen, aldiz, askoz gehiago da arazo politiko bat, eragin sozialekin. Gure gizartea integratua dago eta bizikidetza normaltasunez darama eta Ipar Irlandan ez.

Hori gizartearekiko. Eta bake prozesuarekiko?

Desberdintasun handiena da hura aldeanitzeko prozesua izan zela eta hau aldebakarrekoa dela.

Gu bake prozesuaz ari gara, baina hemen batzuek bake prozesua egon dagoenik ere ukatzen dute. Izen bat edo bestea izan, hori egin behar dela adostu gabe egin daiteke aurrera?

Hori beti gertatzen da, beste garai batzuetan ezker abertzaleak ere ukatu izan du bake prozesua zegoenik. Aurrera egin behar da, beste erremediorik ez dago. Azken finean, konpondu behar direnak arazo zehatzak dira: biktimen gaia, kartze-

inori ezer leporatzeko ikus dezagun adibide bat, Sorturen legalizazioarena: batetik bestera egin zen, zerotik ehunera urrats batean, di-da. Mundu guztiak txalotu zuen eta, gainera, emaitzak eman ditu, ezker abertzaleak legezkoa izatea lortu zuelako. Baina, adibidez, presoen esparruan eta desarmean egiten ari den denboraren kudeaketak zalan-tzak sortzen ditu.

Preso bakoitzak egin beharreko mugimenduak orain, di-da, egin beharko liratekeela diozu.

Ez hori bakarrik. Ezin dira presoak bakarrik utzi erantzukizun horren aurrean eta bidea erraztu beharko litzaieke; beraz, beste norbaitek ere modu kolektiboan iraganaren auto-kritika egin beharko luke, bestela ez da bidezkoa. Eragindako mina aitortzea ez da nahikoa, hori da esatea “zaplaztekoa eman dizut eta aitortzen dut hori”, baina horrek ez du balorerik.

Eta zer da ezker abertzaleak edo ETak esan behar dutena?

Nik badakit zer idatziko nukeen, baina hori haiek egin behar dute. 850 hildako eragin ditu ETak eta legea betetzeko eta gizartean sinesgarritasuna izateko, iraganean egin-dakoa zentzu autokritikoz aztertu behar du. Bestela ez du balio. Bikti-mei eragindako mina ez dela justua izan aitortzea oinarritzkoa da. Ezker abertzaleari hori egokia iruditzen ez bazaio, beste formularen bat bilatu beharko da, baina autokritikaren zentzua galdu gabe. Eta honekin ez dut esan nahi ezker abertzaleak bakarrik egin behar duela autokritika, denek egin behar dute, baina ezker abertzaleaz ari garelako diot hori eta horrek orain espetxe politikan eragiten duelako.

Kontua da non dagoen muga: “halakoan erratu naiz” esatea den edo 50 urtetako ibilbide politikoari uko egitea.

Ez dut uste hori guztia eskatuko zaionik. Giza eskubideen urraketaz ari gara eta GALi buruz hitz egiten dugunean, torturaz, frankismoaren memoriaz... egia, justiziaz eta errepazioaz ari gara. ETaren kasuan berdin.

“Garaile eta garaituen ideia horrek ez du inongo etorkizunik eta soziometroan argi dago gizartearen gehiengoak ikuspegi horretatik aldentzen dela”

ETaren kasuan egon da egia eta zigorra, beste kasuetan ez, inpunitatea egon da.

ETaren kasuan ez da inpunitaterik egon, baina gizartearen zati batek babesa eman die ETak egindako giza eskubideen urraketari eta horrek balore erantsi larria ematen die urraketari horiei. Batzuek zera diote, “ez da inor ibili kalean torturaren alde”, “bai, baina isiltasuna egon da”, diote besteek. Kasu bakoitzak badu bere berezitasuna, baina oinarrian, giza eskubideen urraketak izan direnean, aitortu behar dira eta ikuspegi kritikoz aztertu.

Kartzela politika: Espainiako Gobernuak zer egin beharko luke?

Legea bete. Bat, presoak hurbiltzeko ez da lege aldaketarik behar. Bi, presoek beharrezkoak diren baldintzak bete ondoren, haien espetxe onurak baimendu beharko lituzke. Eta hiru, aztertu ea kasu batzuetan nola bideratzen diren birgizarteratze prozesuak.

Urtarrilaren 8an Guardia Zibilak EPPK-ko zortzi bitartekari atxilotu zituenean zer pentsatu zenuen?

Berriro ere beste oztopo baten aurrean geundela.

Ba al du zentzurik espetxeak betetzen jarraitzea, adibidez Frantziak etakideak atxilotuz edo Hego Amerikatik iheslariak ekarritz?

“ETak eman dituen pausoak berandu eman ditu eta, neurri handi batean, egungo zailtasun batzuen azalpena hor dago”

Legea bete behar den printzipioa hor dago eta errespetatu behar da. Baina, aldi berean, kontuan hartu behar da bake prozesu batean gaudela eta, beraz, adostasun politikoak landu behar direla legea era batera edo bestera aplikatzeko.

Ba al duzue EPPK-ko presoekin hitz egiteko asmoa?

Herrirarekin hitz egin dugu, Etxerarekin, Harrerarekin... Hitzeman ekimena abian jartzen dugunean sektore guztiekin egon nahi dugu.

Ez duzue oztoporik izango EPPK-koe-kin hitz egiteko?

Ez dut uste.

ETaren desarmea. Jaurlaritzak zeregin horretan parte hartuko lukeela aipatu izan duzu. Bermatu ahal izango luke Jaurlaritzak horretan parte hartuko duten etakideak ez direla atxilotuak izango?

Bi gauza desberdin dira. Bata da nola egiten den desarmea eta bestea nola kudeatzen diren etakideek legearekin dituzten gaiak. Egitekotan Jaurlaritzak ez luke bakarrik egingo, adituak beharko lituzke eta badira laguntzeko prest direnak.

Orduan, aurrera egin dezake prozesu horrek?

Ez dut uste ETak nahi duenik Eusko Jaurlaritzak armagabetze prozesuan parte hartzea, guk gure prestutasuna agertu dugu baina ez dugu erantzunik jaso.

Nazioarteko bitartekariak nahi ditu horretan?

Hala ematen du.

ETak esan du urtebetea gauzatu nahi duela prozesu hori.

Ez dakit ETak hori esan duen. Lehenbailehen egitea litzateke onena, urtebete ondo legoke eta gutxiagoan balitz hobeto. Gai hau gauza askotarako oztopo da.

Aintzat hartzen al da biktima guztien sufrimendua?

Gaur egun ez. Nazioarteko printzipio eta arauak diote biktima guztiek berdintasuneko tratua jaso behar dutela, ezin dela haien arteko diskriminaziorik egin eta, gure ahalmen

mugatuekin, Jaurilaritzan horretan saiatzen ari gara.

Non urratzen da aipatzen duzun printzipioa?

Terrorismoaren biktimen legedia oso garatua dago eta beste mota bateko biktimena ez. Gu hori garatzen ari gara. Badugu dekretu bat 1960tik 1978ra arteko tarte horretako beste biktima horien erreparazioa eta errekonozimendua egiteko, 1978tik aurrerako kasuetarako beste dekretu bat egingo da, tortura kasuak ikertuko dira... Gaur egun zaila da, baina normalizazio prozesu batean gaude eta biktima guztiekiko tratamendua berbera izan dadin norabidean goaz.

Duela gutxi atera da Espainiako Gobernuak ez dituela GALEn eta BVEren hainbat biktimen kalte-ordainak ordaindu nahi.

Espainiako Gobernuak ukatu ditu hainbat kalte-ordain esanez pertsona horiek ETaren munduarekin loturaren bat dutela. Baina hori ez da onargarria, lotura horiek epai baten bidez frogatu behar dira eta ez polizia txostenek hala diotelako.

Azter dezagun bizikidetza. Zoru etikoaren gaiak berau oztapatzen du, behintzat alderdien artean. Baina zer da zoru etikoa? Printzipio etikoak. Eztabaida batzuk oso zehatzak eta erabat politikoak dira, baina memoriaz edo giza eskubideez hitz egiten badugu, printzipio etikoak mahai gainean jarri behar dira. Zeintzuk? Printzipio etikoen inguruan adostasun



“Lau familia horien artean gutxiengo etiko eta demokratiko bat adosten denean esan ahal izango dugu beste etapa batean sartu garela”.

handia duen testu bat lortu behar da. Bake Ponentzian Bilduk esan zuen esaldi bati beste zati bat gehituz gero, berak sinatuko lukeela. Hori lortu behar da, %90ean bada adostasuna.

Eta non da desadostasuna?

Iraganaren irakurketan. Hori izaten da zailena prozesu hauetan. Irakurketa desberdinak egongo dira, baina gutxieneko puntu bateratu batzuk ere behar dira.

Jarri behar al zaio eperik Bake eta Bizikidetza Ponentziari?

Hauteskunde garaia da orain, eta halakoak ez dira errazten izaten aurrera egiteko. Lau familien arteko gune bat sortzea zaila da, baina beharrezkoa, beraz uste dut eman behar zaiola denbora.

Oraindik ere aipatzen da hemen garaile eta garaituak daudela. Eske- ma horren gainean eraiki al daiteke bizikidetzarik?

Ez, ideia horrek ez du inongo etorkizunik eta soziometroan ere argi dago gizartearen gehiengoak ikuspegi horretatik aldentzen dela. PSOE, jeltzaleak eta ezker abertzalearen familietan gauza batzuetan izan dira hurbilketak.

Posible ikusten duzu PP ere egotea?

Bai. Gizartearen gehiengoaren jarra oso argia da horren alde, beraz lehenago edo beranduago hori etorriko da. Lau familia horien artean gutxiengo etiko eta demokratiko bat adosten denean esan ahal izango dugu beste etapa batean sartu garela. ■



Txuleta

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

HAURREN HIZKUNTZA ERABILERA

Whatsappak batutako galego hiztunak

Galiziako Compostelako hainbat guraso *whatsapp*-ean taldea sortu eta euren haurrekin parkean biltzen dira galizieraz aritu ahal izateko. Bilbon ere bada taldea.

| ROMINA BAL ETA TXERRA RODRIGUEZ |

“PARKEAN GALIZIERAZ berba egiten duten ume bakarrak gureak dira, hizkuntza hil-hurrenara eramango duen bazterketaren ondorioz. Gainera, espazio publikoan gure ahotsa ez da entzuten, ez du balio”. Aski dela esateko unea heldu zela erabaki zuten Compostelako guraso batzuek. Horregatik, euren buruak antolatu zituzten gauzak aldatzeko, behetik gora, administrazioetatik kanpo. Izan ere, helburua euren altxorrik handiena ez galtzea baita, altxor hori behar bezala loratzea, hain zuzen ere.

Idea Carballon sortu zen, urtero Coordinadora de Tralladores/as de Normalización de Linguak antolatzen dituen hizkuntza dinamizazioari buruzko jardunaldietan. Ideien mintegia antolatu eta Compostelako guraso batzuek bere egin zuten ideia eta praktikara eraman.

2013ko uztaila-abuztu bitartean, Compostelan *whatsapp* talde bat sortu zen, *Tribo* izenekoa. Asmoa zen hara batzea seme-alaben hizkuntza transmisioarekin kezkatuta zeuden guraso batzuk. Ideologiak gorabehera, amatasuna ulertzeko moduak gorabehera, denek bat egin zuten euren seme-alabek taldea sortu eta galizieraz olgetan jardun zezaten. Hasieran mesfidantzak izan ziren: ezezagunekin geratu Belvís parkean? Baina laster gainditu ziren. Umeen talde kohezionatua sortu zen, adin ezberdinekoak (0-13 urte bitartekoak). Eta taldea apurka-apurka handitzen joan zen, gaur egun, 30 ume inguru batzen ditu.



Eguraldiak laguntzen ez duenerako, parkea ez diren bestelako aukerak badituzte guraso-haurrek.

Ez dira geratzen egunero, ahal dutenean baizik. Eta bateren batek behar duenean, beti dauka galdetzeko aukera: non zabiltzate? Umeek agintzen dute eta gurasoek olgetan ikusteko esperientzia ere partekatzen dute. Egunak eta hilabeteak aurrera joan ahala, asko dira *Tribo*k egin dituen ekimenak: kontzertuetara joan, ipuin-kontalariak –hileko azken asteartean Celso Sanmartin-ek Gentalha do Pichel-en egiten dituen saioetara joaten dira–, erakusketak, azoka ekologikoak, mendi txangoak, tabernak, museoak, jaiak... Euri hilabeteak gogortsuak izan arren, udaberri eguzkitsua etor dadin desiratzen dute. Umeen artean, adiskidetasun sendoko taldea sortu da, hizkuntzak talde horretan prestigioa dauka gainera.

Eta zergatik ez ekimena nazioartekotu eta beste hizkuntza eta espazioetara eraman? Zergatik ez saiatu beste hiri batzuetan?

Paula Kasares soziolinguistaren arabera, hizkuntza praktikak eta ezagutzak jasotzeko, garrantzi

gehiago dute adinkideen arteko interakzioek, gurasoekin dituztenek baino. Horretarako, adibide gisa jartzen du galiziarren seme-alabek Euskal Herrian bertakoek bezala hitz egiten dutela gaztelaniaz, bertako dialektoaren traza berberak erabiltzen dituztela. Beraz, bere ustez, garrantzitsua da sozializazioa transmisioa baino.

Hipotesi hori aintzat hartuta, eta Compostelako esperientzian oinarrituta, Bilboko guraso talde batek ere sortu zuen bere *wha-*

tsapp taldea arratsaldeetan geratu eta ekimenak elkarrekin egiteko: parkeara joan, asteburuko irteerak, kultur ekitaldiak... 19 ume batzen dira, batzuk egunero eta beste batzuk ia egunero. Euren asmoa ez da taldea handiagoa egitea. Eurek uste dute onena dela gurasoek euren burua antolatu eta euren taldea sortzea, euren auzoan.

Parte hartzen ari den ama batek, Uxuek, honako berbak egin zituen: “Gehien baloratzen duguna da umeen artean lortu dugun kohezioa. Sei hilabeteren ostean, ia kua-drilla dira. Gurasoek ere gure kua-drillatxoak sortu dugu. Animatu nahi ditugu zonalde erdaldunetako gurasoak batu eta honen moduko taldeak sortzeko. Oso erraza da eta fruituak ematen ditu”.

Honen moduko proposamen xumeek argi uzten dute guztion eskuetan dagoela normalizaziorantz pausoak ematea. Besteek zer egingo duten itxaron barik. ■



Ingelesak euskarak baino gehiago

Nafarroako Arartekoak lan publikorako oposaketetan ingelesa euskara baino gehiago baloratu ez dezan eskatu dio gobernuari. Bi herritarrek egindako salaketaren ostean dator eskakizuna, Arartekoak arrazoia eman baitie eskaerei.

| ANDER PEREZ |

EZ DA KONTU BERRIA. 2010ean, dagoeneko, LAB, ELA, STEE-ELAS eta ESK sindikatuak zein Behatokiak eta Administrazioan Euskaraz Taldeak ohartarazi zuten Gobernuak oposaketetan ingelesa baloratzen zuela. Euskara, ordea, ez. Orduan salatu zuten, UPN-ren gobernuak trikimailua erabili zuen oposaketetan ingelesaren jakintza baloratzeko. Gobernuak oposaketa gisa mozorrotu zituen oposaketa-lehiaketa zirenak (aurrenekotan proba baino ez da baloratzen; bigarren, ordea, probaz gain bestelako merituek ere hartzen dira kontuan). Ingeles proba gainditzen zuenari proba orokorrean lortutako emaitzari %10erainoko puntuazioa gehitzeko aukera eskaini zion exekutiboak. Hala, ingelesaren jakintza derrigorrezko ez, baina erabakigarri suertatu zen lan publikorako hainbat deialdi gauzatzerakoan.

Prozedurak 2009ko foru ebazpen bat du abiapuntua. Funtzio publikoko zuzendari orokorrak argitaratutako agirian zehaztu zen A eta B mailako probek ingelesezko jakintza baloratu zezaketela, oinarritzko ariketa guztiak gainditutako hautagaiei kalifikazioa hobetzeko aukera eman. Ebazpen hura ez zen Nafarroako Buletin Ofizialean argitaratu, gobernuak dioenez, “ez duelako arau izazterarik, eta hortaz, ez delako derri-



gorrez bete beharrekoa”. UPNk, hala, ebazpen horrena aholkua baino ez zela argudiatu zuen. Baina Joseba Otano Administrazioan Euskaraz Taldeko kideak dienez, prozedura era sistematikoan ezarri da ordutik aurrerako deialdietan.


Egoeraren aurrean, bi herritarrek kexa bana aurkeztu zuten Arartekoaren aurrean. Zehazki, bi deialdietako (Ogasuneko teknikari eta Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzailearen ondokorako postuetarako) oinarriak bertan behera uztea eskatu zuten, bertan, aurretik azaldutako prozedura jarraituz, ingelesaren jakintza baloratzen zelako, eta euskararena ez. Arartekoak gaiaren inguruko azalpenak eskatu zizkion Gobernuari eta herritarrei arrazoia ematea erabaki du. Euskararen Legea eta Justizia Auzitegi Nagusiak 2004an emandako epai bat erabili ditu argudio. Lehenengoan zehaztu eta biga-

rranean berresten den modura, euskara Nafarroako berezko hizkuntza dela oroitarazi du Arartekoak, eta hortaz, ingelesa baloratzeko prozedura bi agiri horiek diotenaren aurkakoa dela ebatzi du. Hala, 2009an onartutako ebazpena –ingelesaren balorazioa aitortzen duena– beste bi arauen menpe dagoela adierazi du, horiek maila handiagokoak direlako. Zentzu horretan, atzerriko hizkuntza bertakoa eta neurri batean koofiziala den euskara baino gehiago ezin dela baloratu azpimarratu du, “kasu justifikatuetan” salbu.

Otanok epaia ongi dagoela uste du, baina Arartekoaren ebazpenak lotesleak ez direnez, Gobernuak kasurik ez egitea espero du. Horren aurrean, bide judizialari ekitea litza-teke azkeneko aukera, baina ohartarazi duenez, oposizioegile batek baino ezin du salaketarik jarri. Hortaz, eta herritarrek gaur egun epaiketa judizialak euren kabuz ordaindu behar dituztela kontuan hartuz, zaila ikusten du inork bide horri ekitea. Edonola, Arartekoaren ebazpena “presio tresna” gisa erabili daitekeela uste du, Gobernuak, behin betikoz, prozedura aldatu eta lan publikoko deialdietan euskara diskriminatze-ri utz diezaion. ■



Babeslea: Bilboko Udala



HERRI BOZAK IPARRALDEAN

Abertzaleek zirt edo zart egin behar dute bigarren itzulian

| MIKEL ASURMENDI |

DANI BLANCO



Baionako Jean-Claude Iriart hautagaia, abertzaleen emaitza onen adibideetako bat.

ABSTENTZIOA AZPIMARRAGARRIA izan da udal hauteskundeotan. Ipar Euskal Herrian eta Estatuan hamar herritarretik seik eman dute boza, zortzik ematen ohi baitute. Ipar Euskal Herriko hiri handiko auzapezak izendatu gabe anartean. Hautagaitza abertzaleen emaitza onek bigarren itzulian (martxoaren 30ean) trenkatu dezakete herri askotako udalbatza. Iparraldeko herri txikietan eta barnealdean parte-hartzea ohikoa izan da: herritarren %80k eman du botoa. Abertzaleek emaitza onak eskuratu dituzte, eta zentroko hautagaiak jalgi dira garaile oro har. Beste datu bat, hauxe: herri askotan hautagai anitzek botoen %10 gainditu dute. Hautagai horien jarrerak baldintzatuko dituzte bigarren itzuliko emaitzak.

Baiona, Miarritze, Angelu

Lapurdiko hiriburuan bozen %10 erdietsi dute Jean-Claude Iriart buru

duten abertzaleek, inoizko emaitza onena. Etcheto sozialistak %35 eta Etchegarayren zentro-eskuinak %30. Bozen parekotasunak bigarren itzuli hertsia iragarri dute. Iriarteren jarraz beste, eskuineko Durrutyrena (%19) ere ezagutu behar da auzapez berriaren izena ezagutzeko.

Miarritzen UMPko Max Brissonnek auzapez izateko xantza guztiak dauzka. Veunac zentristarekin bat egingen du ziur aski. Hartara, aise gaindituko dute hirugarren geratuen Lafite sozialista. Angelun ere gibelera egin du auzapez Jean Espilondo sozialistak, bozen %36 lortu-

rik. UMPko Claude Olive (%45) izan daiteke auzapez berria, Jamattite Mortalena zentrista euskaltzalearen (%10) sostengua jaso lezake. Abertzaleen emaitzak eskasak izan dira Angelu eta Miarritzen. Oro har abertzale moderatuek –jeltzaleen ingurukoak– zentro-eskuineko hautagaitzen alde egin ohi dute.

Donibane Lohizune, Hendaia...

Lapurdiko beste hiri eta hiri handietan kontrastatzen nabariak daude. Abertzaleak oro har ongi atera dira Hendaia, Urruña, Ziburu edota Donibane Lohizunen. Areago, Uztarritzen Bruno Carrere abertzaleak bozen %38 lortu du. Auzapez izan liteke. Hendaian Iker Elizalde buru duten abertzaleek erabaki dezakete Battitte Salaberri auzapez aulkian (%29) segitzea edo ez. Kotte Ezenarro bozen %37 erdietsirik, duela lau urte galdu zuen aulkia berreskura lezake. Ezenarro izan da Ipar Euskal Herrian aurretik atera den hautagai sozialista bakarra. Lehia borrokatua eta hertsia izanen da. Gainerakoan, herri eta hirietan, Donibane Lohizune, Urruña, Ziburu edota Hazparnen zentro-eskuineko hautagaiek aginduko dute. Konparazionera, Kanbon (Vincent Bru) eta Itsasun (Roger Gamoy) auzapezak hautatuak izan dira jada lehen itzulian. Abertzale moderatuen (EAJ-PNB) sostenguak eragin handia du Lapurdiko herri hauetan, hainbat hautagai joera horretakoak baitira.

Baxenabarre

Jean-Michel Coscaratek gidatutako Aitzina Baigorri hautagaitza garaile izan da Baigorri, bozen %53 eskuratutik. UMPko Jean-Baptiste Lambert ez da auzapeza honezkero. Donibane Garaziko auzapez Alphonse Idiart

Jean-Michel Coscaratek gidatutako Aitzina Baigorri hautagaitza garaile izan da Baigorri, bozen %53 eskuratutik

eskuindarrak karguan segituko du, 15 aulkietatik 13 bereganatu ditu 945 bozekin. Xabi Larre abertzaleak, ekologisten laguntzaz, 305 boz erdietsi arren, 2 aulki baino ez ditu lortu. Boz sistemaren ondorioa da hori. Emaizta ona da edonola ere. Donapaleuko auzapez Jean-Jacques Loustaudaudinek bozen %49,84 eskuraturik, berretsia geratzeko zorian geratu da, bozen %50 behar baita. Bigarren itzulian ezagutuko da auzapezaren izena. Abertzaleek bozen %14 erdietsi dute. Charles Massondo da beste hautagaia. Abertzaleek tinko negoziatzeko parada irabazi dute.

Zuberoa

Mauleko Mixel Etxebestek ez du auzapez aulkia bereganatu lehen itzulian, duela lau urte ez bezala. Louis Labadot komunistak bozen %31 bildu du. Beñat Elkegararen zerrenda ezker abertzale eta ekologistak %14. Matias Davant sozialistak ere ehuneko bertsua lortu du. Denek dute bigarrenean aurkezteko aukera, beraz, Etxebestek negoziazio zorrotz eta heretsiak izanen ditu. Atharratzen, Sohütan eta gainerako herrietan zerrenda independenteak garaile jaldi izan dira. Zerrendok ideologien amalgama dira.

Herri Elkargoak eta Estatua

Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan orobat, Herri Elkargoen hautetsien izendapenak airean eta jokoan daude. Bigarren itzuliko negoziaketak biziki borrokatuak izanen dira. Trenkatzeko bigune daude gainera: Herriko udalbatzak eta Herri Elkargoak.

Azkenik, deskribapen honen atzean estatu mailako argazkiaren kolore batzuk paratu daitezke: abstentzio historikoaz beste, Marine Le Penen eskuin muturreko Front Nationalen emaitza historikoek Estatuaren beraren egonkortasuna zalantza jarri dute. UMP alderdi eskuindarraren ahultasunaren adierazle dira, zentristen aldiari aldiko arnas une, eta François Hollanderen politikaren porrotaren erakusle. ■



**LET'S
GO%**
2016rako Donostian
%60 birziklatuko dugu.



Zakarrontzira botatzen ditugun hondakinen %40 materia organikoak dira. Horrekin konposta egin daiteke, nekazaritzan, lorategietan eta obra zibilean erabiltzeko.

Hemen da konposta!



Eskatu edukiontzi marroia erabiltzeko txartela.
Emaiozu ongietorria konpostari.

Webgunearen bidez

**jokogarbia.
donostia.
org**

Telefonoz

010
udalinfo

Udalinfo
bulegoetan

UDALINFO
HERRIARRAREN ARRETARAKO ZERBITZUA
SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA

Beskoitzeko ikastola aurrera, Parisek salaketa kendu ostean

Pierre-André Durand Pirinio Atlantikoetako prefetak gutuna igorri du erabakiaren berri emanaz.

| URKO APAOLAZA AVILA |

FALLOUX LEGEA aitzaki hartuta Frantziako Gobernuak Seaskako ikastolei jartzen ari zaizkien oztopoen testuinguruan, arnasaldi txiki bat ekarri du Pierre-André Durand Pirinio Atlantikoetako prefetaren iragarpenak: ez ei du kontrako neurririk hartuko Beskoitzeko ikastola eraikitzeko. Prefetak gutuna igorri dio Beskoitzeko Herriko Etxeari, herriko lurretan ikastola berria eraikitzeko proiektuaren kontrako salaketa kenduko duela esanez.

Beskoitzeko Herriko Kontseiluak 520 metro koadroko zelaia alokatu zion Seaskari, hainbat urtetan berrikusi beharreko hitzarmen baten bidez bertan ikastola eraikitzeko proiektua aurrera ateratzeko. Hendaia ikastolarekin egin bezala baina, Frantziako Gobernuak hitzarmena ezeztatzea eskatu zuen, 1850eko *Falloux legea* ez zela betetzen argudiatuta. Lege horrek debekatzen du iraskaskuntza pribatuari laguntza publikoak ematea; ikastetxe kristauen eragina mugatzeko lege aurrerakoia izan zen, XIX. mendean.

XXI. mendera etorrita, Paxkal Indo Seaskako lehendakaria pozik azaldu da prefetaren erabakiarekin eta beste ikastolen kontrako neurriak ere bertan behera geratuko diren itxaropenez hitz egin du Euskal Irratietan. Hur Gorostiaga ikastolako zuzendariak, berriaz, mobilizatu diren euskaltzaleei eskerrak eman dizkie; “soluzio orokor” bat izan arte galdegiten segituko dutela azaldu du.

Bi urteko borroka luzea

2012an hasi zuen Frantziako Gobernuak ikastolaren kontrako oldarral-



Seaskako guraso eta irakasleek uztailen PSren Baionako egoitza okupatu zuten.

dia, Hendaian eraikina egiteko proiektuaren legezkotasuna zalan-tzan jarri zuenean. Ondoren, Beskoitze eta Hazparneko ikastolekin gauza bera egin zuen. Biarnoko Artixe herriko *calandreta*-ren —okzitanieraz irakasten duen ikastola— kontra ere jo du. Geroztik hamaika mobilizazio egin dituzte ikastolako jarraitzaileek. Uztailen PSren Baionako egoitza okupatu zuten, esate baterako.

Patrick Dallennes Baionako suprefetak egoerari aterabide bat emateko lanean ari direla azaldu zuen berriki, baina hortik gutxira jakin zen suprefetak Hendaia ikastolako

proiektuaren kontra jarritako salaketa aintzat hartu zuela Paueko auzitegiak.

Hitz ederrekin sinesgogor azaldu da beti Seaska, lege dezi-mononikoa lurperatu ezean, ziurgabetasunak segiko baitu ikastola guztietan. ■



Hur Gorostiaga ikastolako zuzendariak “soluzio orokor” bat izan arte galdegiten segiko dutela azaldu du

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Kontseiluak Espainiako eta Frantziako estatuen aspaldiko erasorik handiena salatu du

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



EILAS sindikatuaren protesta hezkuntza erreforma dela eta.

KONTSEILUAK 2013ko *Hizkuntza-politiken urtekaria* argitaratu berri du, laugarrenez. Iaz, hizkuntza politike tan gehien errepikatu den gertakaria Frantziako eta Espainiako estatuen aldetik jasandako esku-hartzea izan da. Iñaki Lasa Kontseiluko ildo politiko-instituzionaleko buruak adierazi duenez, estatuak aspaldiko oldarraldi agerikoena egin dute 2013. urtean: “Ohiko itxurakeriak baztertu eta mozorrorik gabe aritu dira Frantziako zein Espainiako estatuak euskaren normalizazioa helburu duten neurriak oztopatzen. Zentzu horre-

tan, estatuen kanpo esku-hartzea inoizko agerikoena izan da”.

Lau esku-hartze nagusi kontatu ditu Kontseiluak. Espainiako Estatuari dagokionez, lehena, presaka eta korrika onartu duen LOMCE legea; bigarrena, udalek euskararen normalizazioa azkartzeko ezarritako kontratazio irizpideen aurka egin izana; hirugarrena, Nafarroan D ereduaren kontra garatutako estrategia; eta laugarrena, Frantziako Estatuak Seaskaren garapena eta hazkundea oztopatzeko neurriak hartu izana.

Bahea

F.K.-k zuzeu.com-en Soziolinguistika Klusterraren sarien testuinguruan esanak:

“Kezkatzekoa litzateke, beraz, errealitate soziolinguistikoaren azaleko gabeziak bakarrik aintzat hartuz jokatzten hasiak bagina. Ikuspegi politikoetatik ihesean doazen diskurtso eta baliabide aseptikoak garatuz jokatzten hasiak bagina. Edo hizkuntza eta gizatalde menderatzaileekiko kritikarik gabeko ustezko soluzio neutroak eskaintzen hasiak bagina.

Kezkagaria, egiatan, tokian tokiko ekintzatxoak prestatzera mugatzen diren proiektuak bakarrik sustatzen hasiak bagina: zuk hor lantegian, nik hemen eskolaz kanpoko ekintzetan, hark han mendi-elkartean...

Besterik behar du gure hizkuntzak, normalkuntzarako erreferentzia makroa galdu nahi ez badu behintzat.

Bide okerretik goaz, guztiz okerretik, sagutera harrapatutako sagutxoek eskapatzeko egiten dituzten azken ahalegin alferrikakoak bezala irudikatzen hasten bagara gure lana”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Erreforma antisozial gehiago

AZKEN EGUNOTAN asko hitz egin da Espainiako Gobernuak inposatu nahi duen –eta EAEko eta Nafarroako gobernuek ezarri beharko luketen– beste erreforma batez. Orain erreforma fiskala da. Aditu talde baten proiektua dago eta aditu horiek ez dira sektore herrikoien aldeko izatearen batere susmagarriak. Lehen lan erreforma eta bankuen berregituraketa izan ziren; langileen kontrako erreforma antisozialak. Denak kapitalaren, enpresarien eta bankarien zerbitzura.

Hala, Espainiako Gobernuak erreforma fiskalaz zer erabakiko duen zain gaude. Proposamenak PFEZa jaistea aurreikusten du; batez ere gehien irabazten dutenei eragiten die neurri horrek. Aberastasan handiek ordaintzen duten ondare zerga ezabatzea ere ekarriko luke. Enpresariak ordaindu behar duten elkarteen zerga jaitsiko litzateke, baita inbertsiorako finantza produktuak dituztenei interes-tasak murriztu ere. Aldiz, BEZa igotzearen aldekoa da; kontsumitzaileari eta herritar zehari eragingo lioke horrek. Paradisu fiskalak eta ezkutuko ekonomia ezabatzeko apusturik ez dago ordea, Espainiako Estatuko BPGa-

ren %15 eta %20 artekoa dela uste den arren. SICAV edo inbertsio kolektiboko elkarteak babestea da asmoa, Espainiako Estatuko aberastasunaren zati handi bat hor ezkutatuta dagoela jakinda ere.

Ez gaitu harritu berriz ere bankari, enpresari eta dirudunen mesederako erreformak inposatzea. Hori da kapitalismoaren logika, eta gobernuak bere kudeatzaileak baino ez dira, etekina pilatzen segitzeko tresnak. Hargatik, kapitalak ez die utziko gobernuari bere terrenoan sartzen, bere kobazuloetan, hantxe baititu altxorrak. Paradisu fiskalak deitu ohi zaie zulo horiei. Ez die bere ondarea ukitzen utziko, alderantziz, haren gaineko zerga ezabaraziko du. Enpresetan ere ez dira sartuko gobernuak, baina zergak gutxituko dizkiete. Egoera hau aldatzeko beste eredu sozio-ekonomikopolitikoa behar da, Euskal Herriko subiranotasun ekonomiko eta politikoa ekarriko duena. Eta batez ere, langileen eta herritarren zerbitzura egongo dena.

Juan Mari Arregi



Gerra Hotza Krimean: gasa, urrea, monetak eta diplomazia

2014ko martxoan berriro Gerra Hotzean aurkitu da Europa. Kapitalismoak menderaturik Sobiet Batasunaren inguruan artikulatutako bloke alternatiboa, deitu sozialismo erreala edo estatu kapitalismoa, Historia ez dela amaitu. XXI. hastean inperio kapitalistek talka egin dute Ukrainan eta asko dago jokoan Krimean.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

VLADIMIR PUTINEK KRIMEA HARTU zuen bere tropak banderarik gabe bidalita, ondoren eskualdeko parlamentuak erreferenduma antolatu ziztu bizian, herritarrek gehiengo oso handiz Krimea Errusiari itsas-tea bozkatu zuten, nazioarteak bozketa arbuiatu, AEBek eta Europak erabaki zituzten Moskuko agintarien kontrako isolamendu neurriak... Horrela hasiko ote da 2014an gertatzen ari den Gerra Hotz berriaren istorioa, Kiev eta Euromaidan “aurrekariak” atalera-ko utzita?

XXI. mendeko gerra hotz berria baita orain gai nagusia, aste urri batzuek lausotu dituzte Euromaidaneko eta gainerako protestaldiak, sistema politiko ustelaren salaketak, Ukrainaren Europara hurbiltzeko nahiak eta beste. Gerrak, izan hotz edo beroak, militarrek egiten dituzte, batzuetan bataila odoltsuetan, bestetan ezkutuka. Baina diruak elikatzen ditu.

“Historia ez da amaitu eta menturaz Krimea txikian ari da erabakitzen mundua ondorengo mende laurdenean zer izango den”. Bartzelonako *La Vanguardian* Dinero gehigarria koordinatzeaz gain igandero bere analisi ekonomikoa plazaratzen duen Jose Manuel Garayoak esana da *La diplomacia del dólar frente al rublo y el yuan* artikuluan.

Garayoaren iritzian Errusiak sentitu du AEBek berriro zintzurra estutu nahi diotela. Bukatu ziren Yeltsinen garaiak. AEBak merkataritza libreko eremua ari dira antolatzen Europarekin, Ukraina barne, duela gutxi askok uste zutenek. Pekin Moskurekin batera omen dago urduri Mendebaldearen jokatibidearekin. Txina da Mendebaldearen fabrika, Errusia Europaren gas hornitzailea.

Monetaren inguruko politikak gauza abstraktuak dira herritarrentzako, baina Txina bezala Errusia erasotuak sentitu dira AEBetako Banku Zentralaren azken erabakiekin: AEBen zorraren %30 Txina eta Errusiaren eskuetan daude. Hauetako oligarkak hasi dira aipatzen bono yankiak era masiboan saltzeko mehatxua.

“Baina Pekin are urrunago joan da”, dio Garayoak. “Urrea erosten aritu da, probestuz 2013an bere balioaren %28 galdu zuela. 2014an %14,8 garestitu da”. Txinak erosi die urrea Frantziari eta Italiari, AEBek baino gehiago edukitzearen. Zenbait adituren ustez Txinak dolarraren orde ezarri nahi du renminbi edo yuana erreaz lagundurik. Eta urte meategiak dauzkan Errusia bere alde leukake.

Zertarako urre erosketok? AEBetako agintariei interesatu zaie

Portal de Seguridad blogetik hartu dugun argazkian, banderarik eta ikurrik gabe doazen tropa errusiarrak Krimeako Sinferopol hiriko sarreran kontrola jarrita. Aste gutxiren buruan gertatu dira Kieveko herritarren mobilizazioak, oposizioaren matxinada, Victor Yanukovitxen ihesa, Krimearen inbasioa, Krimeako erreferenduma eta Errusiak eskualde hori bereganatzea. Ondoren AEB, Europa eta beren aliatuen zigorrak eta Gerra Hotz berriaren hasiera. Irudi txikiak biltzen du M.Wuerker cartoongile amerikarrak *Político* aldizkarian plazaratutako marrazkia: AEBen lurrazala osorik zulatua ageri da erregai berriak eskuratzeko eta itsasontziak partitzen ari diren portuek idatzita daukate ikatza edo gasa esportatzen dutela. Txikizioaren erdian gizonak diotso emakumeari: “Gogoan duzu nola esaten zuten zulatu, hondeatu eta apurtzeko [fracking] kontu hau dena zela gure energiako burujabetza segurtatzeko?”.

dolarra apal mantentzea, esportazioak sustatzeko. Ordainetan, renminbia hain garesti egoteak kaltetu ditu Txinaren interesak. Hazkundera moteldurik azken urteotan, gehiago zorpetzea beste biderik ez zeukan eta mugaraino iritsia zen. Maniobratzeko tarte handiagoa behar zuen. “Horregatik —dio Garayoak— Ukrainako krisiarekin dolarraren mundu mailako diplomazia ataka estuan dago, eta bitartean urrea ero moduan ari da garestitzen”.

Gas zahar eta berrien epelean

Nazionalismoek, ikuspegi geopolitiko kontrajarriek eta monetan arteko norgehiagokak adina gasak ere berotzen du XXI. mende hasierako Gerra Hotz berria.

Kontua da Ukraina sutu baino lehen... gasaren mundu mailako merkatua zegoela irakiten. Erruduna: AEB hain arrakasta handiz ustiatzen ari den fracking gasa. Iazko udan *Le Monde Diplomatique* azaldu zuen datu berri hau Régis Genték: “Le gaz schiste chambule la géopolitique” (Fracking gasak hankaz gora jarri du geopolitika).

Irakurlea oroituko da 2005etik 2009a bitartean Ukraina eta Errusiak eduki zuten disputaz, behin baino gehiagotan errusiarrek beren gas emaria eten zitelarik ukrainarrei, berdin negurik gorrie-



munduko aberatsenek ez baitute aberririk, orain arte Nigerian edo Ekuadorren kutsatzen zituzten bezala bazterrak petrolio merke eskuratzeko, orain metropolia bera txirtxilatzen gai dira, izan Ipar Dakotan edo Pennsylvanian. Baina hori, beste baterako.

Ukraina eta Krimeakoari loturik, inporta dena da gasaren hornidura eskema osoa nahaspilatu dela. Oraingoz Errusiaren kaltetan. Kri-siagatik Europak kontsumoa murrizteaz gain, AEBetatik ikatza merkeago dator, hau ere gasaren kalterako, eta laster arbeletik ateratako gasa Europari eskainiko zaio.

Garraioan ere aldaketak daude. Petrolio ustiaketak goia jo duelarik, gas likidotuari eman nahi zaio haren lekua. Ondorioz, produktu berri hori garraiatzen ari dira itsasontziz, propio prestatutako portuetan lagatzeko. Jokaldia usainduz, errusiarrak gero eta gehiago Asiarantz begiratzen dute beren gas *zaharra* saltzeko.

Ez galdetu aldaketa guztiokin zertan geratuko diren klimaren beroketaren inguruko negoziaketa eta erabakiak. Ikatza modan baldin bada berriro... Pick Oil fenomeno bera batzuek uste dute pare bat hamarkadaz atzeratu duela fracking gasak.

Inkognita asko dago afera hone-tan guztian. Baina uka ezinezkoa da Krimean egunetik egunera argitan ikusten diren mugimenduen giblean gutxi batzuek darabilten jokoan daudela monetak, erregaia, zor publikoak eta... beti bezala, merkatuak. ■



nean. Ekialdeko gasa Europara ekartzeko hodi-bide berriak eraikitzen ari ziren eta diren arren, garrantzitsuenek Ukraina zeharkatzen dute oraindik. Kieveko agintariek garestiegiztat zeukaten errusiarrei beren kontsumoagatik pagatu beharreko prezioa eta eztabaidan adostasunik ez zenez, erregaia trafikoa eteteko mehatxua gauzatu zuten behin edo beste, errusiarrek berriz batzuei bezala beste iturria ixten.

Baina hori lehenago zen, fracking gasarekin AEBek bere burua hornitzea lortu aitzin. Hiru urteren buruan yankiak esportatzen hasteko punturaino heldu dira. Gentek kontatu zuen nola iazko uztailan bilduak ziren gas natural konben-


tzionalen ekoizle nagusiak (Errusia, Iran, Qatar, Bolivia...) arbel gas berriaren aurrean estrategia adosteko. AEB gai ziren merkatu barruan gasa unitateko 4 dolarretan saltzeko, Asian 18 eta Europan 10 kostatzen zen bitartean. Bat batean, erregaian %70 atzerritik ekarri behar zuten AEB buruaski izateko puntuan aurkitu ziren.

Alde batera utz dezagun gaurko fracking gasaren benetako kosteara. Zeren eta, energia nuklearrarekin gertatzen den bezala, ezkutuan lagatako eta gizarteari bezala biharko jendeei lagatzen zaizkien kosteak kontabilitatetik kanpo uzten baitira. Tartean gasa lurpetik ateratzeko prozesuan eragindako kutsadura izugarria. Baina



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Iheslarien urrats sinbolikoa

IPAR EUSKAL HERRIKO udal hauteskunderi buruzko lehen irakurketak agerian utzi du hautagai-tza abertzaleek izandako gorakada, bai boto kopuruetan eta baita ehunekotan ere. Oro har, barnealdean izaten dira abertzaleen emaitzarik onenak eta oraingoan kostaldean ere aitzina egin dute, Baionan %10 gaindituz, esate batera. Uztaritze eta Ziburuko kasuak ere aipagarriak dira, lehenen abertzale eta ezkertiarren zerrenda bateratuak botuen %38 lortu duelako eta bigarrenaren kasuan %21. Donibane Lohizune, Urruña, Arbona eta Baigorriko emaitzak ere azpimarragarriak dira, azken bi herrietan beste sektore batzuekin aliantzan eta Baigorriren kasuan alkatetza lehen itzulian lortuz.

Angelun eta Miarritzen abertzaleen emaitzak ez dira onak izan, gune horietan abertzaletasunaren zati bat hautagai zentristengana doa. Orain ikusi beharko da datorren igandeko bigarren itzulian aliantzak eta sostenguak nola elkar trukatzaren diren. Alde horretatik ere abertzaleen botoak inoiz baino erabakigarriago izango dira herri askotan. Bozkei begiratuz bederen, abertzaletasunak gutxiengoa izaten jarraitzen du Ipar Euskal Herrian, baina azken urte luzetako joerak dio bere presentzia handitzen doala, gero eta udal gehiagotan dagoela eta bere ikusmoldeak gero eta arruntagoak direla gizar-tean. Areago, beste sektoreekin bat egiten duenean, gizarteari buruzko hainbat ikusmolde nagusi edo oso esanguratsu bilakatzen dira esparru askotan, hala nola nekazaritza edota lurralde antolaketan eta, oro har, altermundialis-

moaren balore eta eredu askotan. Iragan udazkenean Baionan izandako Alternatiba Eguna izan daiteke, esaterako, aipatu aliantza horien erakusle.

DOZENAKA IHESLARIREN erabakia ere albistea izan zen iragan asteburuan, eta Arrangoitzen egindako bilkuran, Hego Euskal Herriko beren jaioterrietarako bidea hartuko zutela jakinarazi zuten 80 bat iheslarik, horrekin beren bizitzako ihes ibilbideari amaiera sinbolikoa emanez.

Eta horrek hausnarketa baten sozializazioa eskatzen du ezinbestean: zenbat ote da gaur eta hemen bizitzeko adina irabaztea?

Gaur egun, ustez ETArekin edo ezker abertzaleko beste erakunde batzuekin zerikusia izan dutelako beren herrietatik ihes eginda dauden pertsonen %20k iragarritako kontua da, legalki Espainiako justiziaren aurrean erantzukizunik ez duen taldea. Egia esan, tantaka izan bada ere eta ahalik eta zarata gutxiena eginenez, iheslari asko itzuli izan da lehenago ere edo bere sorterrira edo Hegoaldeko beste herriren batera. Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboko (EIPK) kideen urrats honek sinbologiaren esparruan du bere garrantzia, zelanbait ofizialdu egiten duelako ihes egindako pertsonen itzulera. Zarata mediatiko gutxiagorekin eta ezaugarri desberdinekin, baina presoen esparruan ere gertatu izan dena errepikatu da sarri iheslariarekin ere, itzultzearen inguruan tentsioak izan direla ezker abertzalearen baitan, batzuen ustez alde egitera

behartu zituzten arrazoiak oraindik gainditu gabe zirelako. Azken finean, iragan udan EIPK-k Miarritzen hartutako erabakiaren ondorio da azken mugimendu hau, funtsean sinbolikoa bai ezker abertzalearen baitan eta bai bake prozesuari begira, baina oraindik gainerako iheslarietara itzulerarako giltza ematen ez diena, giltza hori, presoen kasuan moduan, nagusiki Espainiako Gobernuaren esku dagoelako.

CHRISTIAN FELBER *Guztien onerako ekonomia* liburu ospetsuaren egilea da. *La Vanguardia*-k elkarriketatu zuen igandean eta, besteak beste, gaur egungo soldatek Mendebalean daramaten beheranzko joera eta lan ordu kopuruaren arte-

ko hausnarketa egiten du, soldaten aurkako presio hori lan gutxiago egitearen aldarrikapenaren kontrako ere badela erakutsiz. Bere ustez, 30 eta 33 ordu arteko lan astea beharko litzateke:


“Lan egunaren gutxitzeak denbora ematen du harreman sozialak garatzeko edo asebetetzen gaituzten beste jarduera batzuk egiteko. Hau guztien honerako da, bizitza kalitatearentzat. Baina lan-sari txikiak dituzten langileek ezin diote lan egunaren (eta diru-sarrerren) murrizketari eutsi. Aldez aurretik segurtatu behar dugu guztiek irabazten dutela bizitzeko adina eta, orduan bai, lan gutxiago egin eta kaltegarriak diren zenbait gauzen ekoizpena eten”.

Eta horrek hausnarketa baten sozializazioa eskatzen du ezinbestean: zenbat ote da gaur eta hemen bizitzeko adina irabaztea? ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



HAMLET Donibane Eibar

2 lagunentzako bina sarrera
Apirilak 10 · ordua zehaztu gabe
Coliseo Antzokian

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

1



HAMLET Andoain

2 lagunentzako bina sarrera
Apirilak 11 · 21:30
Bastero Kulturgunea

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2



HAMLET Bidart

2 lagunentzako bina sarrera
Apirilak 12 · 20:30
Zine Zaharra

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

3



esan eta egin

Alex Sardui

5 liburu opari

www.baga-biga.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2407. Argia)

HAMLET - ERMUA

- Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)
- Rosa Agirreazaldeggi Berriozabal (Eibar)

HAMLET - AGURAIN

- Amaia Alvarez Uria (Gasteiz)
- Josu Iztueta Azkue (Tolosa)

EKAINBERRI

- Kari Lopez Davalillo Bañuelos (Galarreta)
- Jabier Altzorritz Lardies (Bilbo)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)

ITSASOAREN EMAZTEAK

- Inaxio Agiriano Bergaretxe (Donostia)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
- Bolintxu aek Euskategia (Basauri)
- Mikel Garmendia Aizpurua (Bilbo)

ERLEA GURE SENDAGILE

- Jesus Ondarra Erdozia (Iruñea)
- Elgoibarko aek Euskategia (Elgoibar)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



MIKEL URDANGARIN

PAGOA ARETOA
OIARTZUN
Apirilak 5
22,30etan

Preziorik onena
 **argia** dendan

~~15€~~ 9€

Eskuratu zure sarrera:
☎ 943 37 15 45
denda@argia.com

Antolatzailea:

Laguntzaileak:

